

ANTZIZAR
KIROLDEGIA



BEGIRISTAIN

TOLARE-SAGARDOEGIA

Haragia eta ogia jartzen ditugu
Egunero zabalik 8etatik 11etara
Igandeetan itxita
Eguerdietan enkarguz

☎ **943 65 28 37**

IKAZTEGIETA

SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN

KORTA

☎ **943 88 71 86**

GABIRIA

OTATZA

TOLARE SAGARDOEGIA

Aste guztian zabalik, asteazkena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere ire-
kita (asteaz zehar eguerditan enkarguz)

Txotx denboraldia 19tik zabalik

☎ **943 80 17 57**

ZERAIN



aulia

**TOLARE
SAGARDOEGIA**

☎ **943 80 60 66**

LEGORRETA

Olagi



Urte guztian zehar zabalik

☎ **943 88 77 26**

ALTZAGA

AMEB



Sagardotegia

**TXOTX
DENBORALDIA
IREKI DUGU**

**ASTELEHEN
GAUETAN
ITXITA**

☎ **943 16 25 23**

**Zubierreka, 9
LAZKAO**

ZALBIDE

**TOLARE
SAGARDOEGIA**

Otsailaren 9an irekiko dugu
Astegunetan 19:00etatik aurrera
Asteburuetan eguerdi eta iluntzean

☎ **943 65 21 76**

ABALTZISKETA



TXIMISTA

Sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea

☎ **943 88 11 28**

ORDIZIA

URBITARTE



☎ **943 18 01 19**

ATAUN



ETXE-ZVRI

SAGARDOEGIA

☎ **943 88 20 49**

OLABERRIA

Non zer

6 KOLABORAZIOA: Andoni Sarriegi.

8 KATE MOTZEAN: J.I. Mujika

10-11: Gazte Kontsulta Lazkaon.

12: Goimen sariak

13-24 KRONIKAK

ZEGAMA 13:

mendietan inbertsioak.

ATAUN 14: Iñaki Agirre

txapeldun. **EZKIO-ITSASO**

14: Idazkari berria. **ZERAIN**

15: Informatikako gela.

LEGORRETA 15:

Haurrentzako zinea.

IDIAZABAL 16: 285

milioiko aurrekontua.

ZALDIBIA 17: herritar

zaharrenak 100 urte.

SEGURA 18:

ikastaroak. **ORDIZIA**

19: Ordizian-en lelo

berria. **LAZKAO 20:**

Garaiz denda. **BEASAIN 21:**

San Sebastian jaiak Garinen.

GABIRIA 22: karretila

lehiaketa.

24 KIROLA: Bi lerrotan

24-25: DEBALDEKO IRAGARKIAK

26-27: AGENDA

29: ZAHARRAK BERRI:

Sagardoa: atzo eta gaur.

30: FOTO ZAHARRA: Idiazabal 1949an.



Maidar Urretabizkaia, Asier Mendizabal, Jesus Jauregi eta Jokin Telleria

Goiart 2000-Ordizia sariaren irabazleak

Ordiziako Udaleko Kultura Sailak antolatutako 'Goiart2000-Ordizia' lehiaketan ondorengo artisten lanak erostea erabaki zen: Jesus Jauregi, Asier Mendizabal, Maidar Urretabizkaia eta Jokin Telleria. Erabaki hori hartu zuen epaimahaia Iñaki Moreno Ruiz de Eginok (artista, kritikoa eta erakusketen komisarioa) eta Jean Francois Larralde (Lapurdikoko Geta-riko museoko zuzendaria eta Bordeleko unibertsitatearen artearen historia-ren irakaslea) osatzen zuten.

40 lan aurkeztu ziren

Ordiziako Udalak 500.000 pezeta jarri zituen artista goierritarren obrak erosteko. Denera Goierriko 25 artis-

ten 40 lan aurkeztu ziren. Gehienak pinturak baziren ere, eskultura, zera-mika eta bideoak ere baziren tartean.

500.000 pezeta

Abenduaren 26an, Ordiziako Barrena kultur etxean, Alejandra Iturrioz alkateak eman zituen sariak. Seguran bizi den Jesu Jauregiren 'Akelarre' lana 70.000 pezetan erosi zuen Udalak, Asier Mendizabal ordiziarren titulurik gabeko-lana 65.000 pezetan, Maidar Urretabizkaia lazkaotarraren titulurik gabeko-lana 95.000 pezetan eta Jokin Telleria beasaindarraren 'Teillatuen gainetik' lana 200.000 pezetan.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxe: 943 88 27 19
E-mail: goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitatea: Argider Mujika Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aimar Maiz, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Mari Flor Mendizabal, Iñaki Ugalde, Aimar Maiz, Joseba Etxezarreta, Andoni Sarriegi.

Fotokonposizio eta maketazioa: **GOIERRITARRA**. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9, Oñati)

Tirada: 8.000 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



*Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria*

Sukia Eraikuntzak enpresaren aurkako atentatua

Donostian Sukia Eraikuntzak duen enpresan lehergailuak eztanda egin zuen abenduaren 29an. ETAK 'Gara' egunakarira eginiko dei batean, leherketaz ohartarazi zuen. Sukia Eraikuntzak-eko enpresa batzordeak, oharra kaleratu zuen atentatua salatzen: "Enpresa batzordearen iritziz, atentatu honekin ETAK arriskuan jartzen duen bakarra Sukia Eraikuntzak orain dituen 85 langileen lanpostua da". Goierriarrak dira Sukia Eraikuntzak-eko nagusiak.

Mila Ioldi

Mexikoko Gobernuak Mila Ioldi atundur errefuxiatua atxilotu eta urtarilaren 8an Espainiako gobernuaren esku utzi zuen. 1999an ihes egin zuen Ioldik eta bere mutil lagunak Euskal Herritik. Donostia komandoari laguntza ematea leporatzen diote.

Asier Irastorza

Urtarrilaren 7an atera zen Basauriko kartzelatik Asier Irastorza 'Tortzi' ordiziarrak. Zazpi urte eta erdi egin ditu Espainiar estatuko kartzeleetan. Urtarrilaren 14an egingo zaio omenaldia Ordizian.

Eugenio Irastorza presoaren askatasunaren aldeko ekimena

Ordiziako Eugenio Irastorza presoaren egoera salatzeko, Ordiziara! plataforma, Senideak elkarte, Aministiaren Aldeko mugimendua, Eugenioren koadrila, preso ohiak eta hainbat herritar elkartu eta ekimena sortu dute. 21 urte daromatza Irastorzak kartzelan eta duela sei urte egin behar zuen kalean.

Eugenioren askatasunaren aldeko ekimenak aurkezpenean esan zenez, "egoera bortitz eta penagarri hori gehiago luza ez dadin, bereziki Eugenioren eta bere familiakoei baina neurri handi batean baita bere lagunei eta beste herritar guztiei ere, doaneko sufrimendua eragiten digun egoera hau atzean uztearen alde lan egiteko asmoz bildu gara hemen zenbait herritar". Ekimena irekia da eta nahi duen guztiak har dezake parte bertan.



Ordiziara! plataforma, Senideak elkarte, Aministiaren Aldeko mugimendua, Eugenioren koadrila, preso ohiak eta hainbat herritarrek osatzen dute plataforma.

Ekimenaren helburuak betetzeko, hainbat ekintza antolatzen ari dira, "beti ere herritarren sentsibilizazioa eta, batez ere, Eugeniorekiko elkartasuna lortzeko helburuaz", dio Ekimenak. Honela, epaileari preso ordiziarraren askatasuna eskatuz idatzi bat bidaltzeko aukera eman go die herritarrei. Eugenioren eta beste presoek eskutitza bidaltzeko au-

kera ere zabalduko dute. Mobilizazioak ere deituko ditu.

Ekimenak logotipo berria aurkeztu du kanpaina honetarako, '21 urte borrokan, Eugenio etxera' lelopean. Eugenio Irastorza bera azaltzen da lehen planoan, eta 21 urteko kartzelaldi krudela salatzearekin batera, Eugenioren etxeratzea aldarrikatzen da.



Nafarroa
Etorbidea, 9

EGUZKI
INPRIMATEGIA

943 88 94 82

BEASAIN

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierriarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN



XENKEGI
ETXE-AROKINTZA
Diseinuak neurrira

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113

Tel mugik.: 619 487056

Senpere Merkatalgunea, 25

**Sukaldeak
Ateak
Zorruak
Armairuak**

BEASAIN



Eguberrietako azoka arrakastatsua Ordizian

Urteko azkeneko Ordiziako azoka, arrakastatsua izan zen berriz ere. Eguraldiak ere lagundu zuen gainera. Sari ugari banatu zen. Txistorra eta odolki lehiaketa ere jokatu ziren.

Asteazkenero plaza nagusian izaten diren baserriarren artean, Baliarraingo Gorostartzu baserriko M. Jesus Mujika izan zen irabazlea. Gabiriako Antonio Murgiondo izan zen bigarren eta hirugarren saria, Lazkoako M. Jesus Mujika eta Anoetako Jesus Artolak banatu zuten.

Errezil sagar lehiaketan, Gabiriako Isabel Zumalakarregi izan zen irabazlea. Hirugarren saria ere, Gabiriara joan zen, Miren Agirrezabalarentzat.

Fruitu lehor lehiaketa, Gabiriako Antonia Murgiondok irabazi zuen.

Fruituetan azkenik, lehenengo saria Hernanira joan zen eta bigarrena eta hirugarrena, Gabiriara, Maria Etxezarretarentzat eta Miren Agirrezabalarentzat.



Antonia Murgiondok, argazkian bere alaba, bi sari jaso zituen.

Txistorra lehiaketa

Abenduaren 20an jokatu zen III. Euskadiko txistorra txapelketa, Barrena kultur etxean. Aiako Karlos Lekubek jaso zuen txapela. Bigarren postua, Beasaingo Juan Inazio Mujikarentzat izan zen.

Odolki lehiaketa

Abenduaren 27an izan Gipuzkoako txapelketa. Honetan ere, Aiako Karlos Lekube izan zen irabazlea. Gainerako lau postuak goierritarrentzat izan ziren: 2. Beasaingo J. Mujika; 3. Beasaingo Iñaki Zubeldia; 4. Ordiziako Oiangu harategia; eta 5. Beasaingo Olano harategia.



Beasaingo Udalak hitzarmena sinatu du informatikako enpresekin

Informatika arloan euskararen erabilpena sustatzeko, Beasaingo Udalak, Chip's, Goisystem eta Montte informatikako enpresekin hitzarmena sinatu zuen abenduaren 20an. Honela, Beasainen erroldatuak daudenek, 7.000 pezetako deskontua izango lukete euskarazko softwarea aukeratzen badute.

Fernando San Jose

Eurocolmar TV ekoiztetxe berriko zuzendari nagusia da Fernando San Jose lazkaotarra.

Ekaitz eta Irati Goikoetxea

Mutrikuko bertsopaper lehiaketan irabazle izan dira Ekaitz eta Irati Goikoetxea beasaingarrak. 18 urte bitartekoetan, 'liburua' lanarekin gailendu zen Irati eta 18 urtez gorakoetan Ekaitz, 'Ai Itoitz, ai Itoitz! Basoilarrak ez du kanturik Irati-ko basoetan' bertso sortarekin.

Halaber, Zapiain Anaiak bertsopaper lehiaketan ere Ekaitz Goikoetxeak irabazi du lehenengo saria, 'Joanak dakarrena' lanarekin.



Aterpe tabernako IX. pintura lehiaketako irabazleak

Fernando Zubiri donostiarra izan da IX. Aterpe tabernako pintura lehiaketako irabazlea. Honez gain ondorengo margolarien lanak aukeratu zituen epaimahaiak: Enrike Velazquez Usurbilgoa, Olivia Sanchez Ibarakoa, Oscar Barrera Lasartekoa, Martin Zarate Lezokoa eta Leire Markinez Beasaingoa.

Epaimahaiak ondorengoek osatu zuten: Pepi Makazaga, Erreteriko Gaspar galeriakoa, Iñaki Epelde pintorea eta Jose Luis Longaron pintorea.

Lehiaketara aurkeztu diren lanak Aterpe tabernan izango dira ikusgai urtarrilaren 13tik otsailaren 9ra astebeteko 4 txandatan. Tartean hainbat margolari goierritarren lanak izango dira.



Andoni Sarriegi
Eskisabel

Aurrekoak aurreko, 1966-67 ikasturtean, Rikardo Arregi zena, misiolari ibili zen eskualdez eskualde alfabetatze-kanpainaren zabalkundea egiten, hau da, euskaldunok eskolak denok erdara eta erdaraz ikasiok, geure hizkuntza landu eta euskaraz gehiago eta hobeto mintzatzen, irakurtzen eta idazten jarrazteko asmoz.

Ikasturte hartan bertan, Jon Oñatibia ere misiolari ibili zen eskualdez eskualde, erdaldunei euskara irakasteko lehenengo metodoa 'Metodo de Euskera Radiofónico' hura aurkeztu eta azalpenak ematen.

Nola Arregiren hala Oñati-biaren hegalpeetan, euskalduntze-nahiz alfabetatze-lanari ekin genion belaunaldi hartako hainbatek eta herriz herri gau-eskolak sortu genituen. Hasierako gau-eskola haiek, gero, goiz-eskola, bazkalondo-eskola eta arrats-eskola ere bihurtu ziren, eta azkenik, Euskal-tegi izena harturik, hor ditugu han-hemen Euskal Herri osoko herri eta hiri gehienetan barreiatuta.

1975 inguruan, mugimendu hura, handitzen eta sendotzen zihoala eta, AEK (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea) sortu zen, indarrak batuz eta lan hartan ari

ginen gehienok elkartuz eta koordinatuz. Maila guztietako euskararen irakaskuntza zuen xedetzat eta gaur egun ere xede berberarekin dihardu. 1980tik aurrera, beste erakunde eta talde batzuek ere sortu ziren xede berberaz eta AEK-k, hasieran bederen, sortu berri gehienek giza hornikuntza egin zuen, geroago ere, bere kimuak sortzean egin duen bezalaxe.

Garai haietan, frankismoa eta diktadura aurka genituen, eta onenean ere, utzi egiten ziguten jarduten (legeak 3 lagun baino gehiago beren baimenik gabe biltzerik ez zuen onartzen) eta eraketa horiek denak legetik at zaudenak ziren noski.

Gaur egun, espainiar-keria eta demokrazia espainiar erara ditugu aurka eta emaitzak, orduan bezain txarrak edo okerragoak dira tratatu aldetik. Hemen gauza garbi dago, zenbat eta indar handiago izan euskaldunok eta euskalgintzak oro har, orduan eta eraso gogorragoak espainiarrek.

Oraingo AEK-ren eta euskalgintzako baliabideen indarra, irispina eta zabalkundea, zorionez, ordukoak baino askoz ere handiagoak eta eraginkorragoak dira. 35 urteko hainbaten lanak eta 25 urteko koordinazioak, emaitzak eman ditu noski, baina espainiarrentzat, neurri handiegia hartzen ari da euskalgintza eta horri ezin diote utzi aurrera jarraitzen, izan ere, hain dira pluralak, demokratak eta irekiak gure espainiar hauek...! Hori da gako.

Ondorioak, auziperatzeak, bazter-nahasteak, izorramenak, Eusko Jaur-laritzaren beraren aurkako tresnatzat erabiltzeak, isunak, etab. Une bakoitzean beren helburu

AEK-ri erasoak: "eiñei eutsi ta motz heldu"

suntsitzaileei komeni zaiena edo ondo datorkiena. Ez da guk asmatua, harako 'Aritu gaizkiesaka, zerbait geldituko da eta'. Pertsona batzuek beren lekutik atera, isun itzelak ordainarazi, kartzelan eduki, kalteordainak inori eman beharrik ez, hedabide guztien neurriz kanpoko aipamenekin kartzelaratu eta aipamenik ere gabe denboraldi alu bat pasatu ondoren etxera bidali ezkutuan, etab.

Baina bitartean, Espainiako komunikabide erasokor eta mediatikoei, kristorenak esan, kriminalizatu, espainiarrak asaldarazi beren euskaldunen aurkako apologiekin (espainiar erako demokrazia faltsarioaren apologiekin), hemengo hainbat inozo engainatu eta errenta politikoa lortu asmoz aurrera segi. Betikoek betikoa izen desberdinez.

Eta hemen ez da ezer gertatzen. Betikoak, euskaldunok, egurra hartzen jarraitzen dugu, betikoek, espainiarrek emanda eta hain giza eskubide zale diren guztiak isil-isilik beren txokoetan ezkutatu-ta "... eta poeta, ixilik gelditu da..."

Beste gauza askotan bezalaxe esan daiteke honetaz ere "25 urte eta gero hau". Baina ez etsi! 'Oieri firme eutsi, nahiz hanka bana hautsi,

jaioko dira berriak, gu gera Euskal Herriak" Ebanjeliokoa parekatuz, "Gobernariak pasatuko dira, iragango dira, baina Euskal Herria ez" edo Arestiren "... nire Aitaren etxeak iraunen du zutik".

Hori bai, gure gainetik pasa ez daitezen, oraingoan AEK-ri elkartasun osoa eta babesa nahiz laguntza eskaintzeaz gainera, espainiar-keria erasokor horri berehala nola erantzun ere pentsatu eta horretarako antolatu beharrean gaude. Orain desobedientzia zibilarena hasi da

azaleratzen. Ez da oraingoa, aspaldikoa da. Nafar estatua defendatu zutenek (XVI. mendean), karlistek (XIX. mendean), abertzaleek (XX. mendean), bakoitzak bere garaian bere erara erabilia izan da. Orain XXI. mendean Euskal Herriarrok oro har erabili beharrean gaude. Gauzarik errazenetatik zailetara, gauza asko egin daitezke. Estatuaren zuzeneko zerga diren eta jende askok borondatez elikatzen dituen loteria, loto, kiniela, etab. Baztertu (diru horien ia erdia zuzen-zuzenean guri egurra ematen digun Estatuarentzat da), Espainiako aldizkari- eta egunkari-andana izugarriak saltzen dira Euskal Herrian nahi dituzten ankerkeria guztiak esanez. Harako "Ez eros, ez irakur XX" hura abiarazi beharrean gaude, bai geure burmuinak "behi eroetatik" salbu gordetzeko eta baita espainiar ahobero askoren patrikak ez berotzeko ere. Eta abar, eta abar. Garaia dugu esnatzeko. "Eraso handiei eraso handiak". Geure esku dagoena behintzat ez dezagula utzi besteek egiteko. Gure aurreko harakin beasaindar batek txekorra ezin menderaturik zebilen morroiari oi-hu egin zionez: "Eiñei eutsi ta motz (labur) heldu".

Ordiziako azoka bereziari buruzko gogoeta txiki bat

Abenduaren 27an Ordizian egin zen azoka bereziaren antolaketari buruz hainbat gauza entzun eta irakurri dugu egunotan irati eta egunkarietan, baina Garagarza enparantzan egin zen fruta, errezil sagar eta fruitu lehorraren lehiaketan eta salmentan parte hartu genuen goierritar batzuk honako hau jakinarazi nahi diegu antolatzaileei aurrerantzean, ongi irizten badiote, kontuan har dezaten eta konponbideren bat aurki dezaten.

1. Garagarza enparantzan produktuen lehiaketarako Udalak jartzen dituen stand edo postuak ez dira batere egokiak, izan ere ia ez dute inolako aterpe edo babesik eta eguraldi euritsua edota haizetsua izanez gero, produktua guztiak bustiko lirateke eta euren produktuak saldu nahi dituzten baserritarrak zer esanik ez. Gauzak argiago adieraztearren: zer gertatuko zen lehiaketa eguneko asteazken arratsalde hartan egin zuen euri eta txingor erauntsi hura eguerdi aldera egin izan balu?, edota zer gertatuko zen aurreko egunetan eta ondorengoetan izan genuen eta izan dugun haize bortitzak egun horretan ere eraso izan balio? Gure ustez gauzak ezin dira horrela prestatu neguan burutu behar den lehiaketa bat egoki antolatu nahi bada.

2. Lehiaketako postu edo stand guztiak hesiz inguraturik daude eta ondorioz jendeak leku horiek erakustokitze hartu ohi ditu eta ez du uste hor produktua saldu ere egingen direnik; horretaz gain, saltzeko aukera handirik ez dago ez baitago mahairik ere pisuak eta abar jartzeko.

Urtea ez ezik mendea eta milurtekoa ere amaitu zaigu

eta gure ustez Garagarza enparantzan lehiaketarako eta salmentarako jarri ohi diren postuak egokiagoak izan behar dute, babes handiagoa eskainiko duten karpak jarritz edota beste lekuren bat izendatuz, eta Udalak ere helburu hori bera izango duenez, ea denon artean lortzen dugun berez handia eta garrantzitsua den azoka hori oraindik ere handiagoa eta arrakastatsuagoa izaten.

Azoka bereziko partehartzaile batzuk

Txemi Arteaga presoa 'txapeoan'

Valencia 2 kartzelan preso dagoen Txemi Arteaga Gariaren lagunak gara eta bere egoera larria salatu nahi genuke.

Kartzelan 7 urte eta erdi igaro ondoren, uztailearen 12tik 'txapeo' delakoan dago, hau da, 23 ordu ziega barruan igarotzen ditu. Kartzelako zuzendariak ez die bere eskakizunei jaramonik egingen. Adibidez, modulu berdinean bi preso politiko egotea debekatzen dute eta beste hainbat kartzeletan hau posible da. Modulu banatan izanik ordu eta egun ezberdinetan dituzte familia eta lagunen bisitak, eta horrek zailago egiten du bidaiak antolatzeko.

Hau dela eta kartzelako zuzendariari gutun bat bidali berri diogu gure ardura adieraziz eta arazoari irtenbide bat eman diezaiola eskatuz.

*Txemiren kodrila
(Beasain)*

Ataundarrok gure ondasunen defentsa aldarrika dezagun lau haizetara!

Orain hiru urte hasi zen dena; Atauna enpresa pribatu bat etorri zen Maumendi-Lareoko lur eremuan bordez osaturiko azpiegitura turistiko eraikitze proiektuarekin.

Momentu hartan, proiektuaren kokalekua Aralarko Parke Naturalean aurkitzen zenez, lur babestuen izendapena zuen; batez ere arrazoi legal hau eta hainbat herriarren desadostasuna medio proiektua ez zen gauzatu.

Ondoren proiektu honetan sinesten zutenek, Ataungo Udal gobernuko agintariak alegia, "oztopo" hori gainditzeko Aralarko Parke Naturala arautzen duen legearen aldaketarako prozedura martxan jartzea eskatu zuten.

Egun, Ataungo Udal gobernuakideek martxan jarritako lur sail hauen berkalifikazio eskaria, Udal Plenoa eta Gipuzkoako Foru Aldundia- ren onespina lortu ondoren Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailean aurkitzen da. Azken erabakiaren atarian emendakinak aurkezteko abenduaren hasera bitarteko epea ireki du.

Eskari honekiko gure eza- dostasuna agertu nahi dugu ondorengo arrazoietan oinarrituz:

✓ Ingurune babestuaren izendapena jasotzeko lehen zeuden argudioak gaur egun ere bere horretan jarraitzen dutela; Euskal Herriko Natura Babesteko Legean (ekainaren 30eko 16/1994 Legea, EHAA 1994-07-27) jasotako zenbait atalekin bateraezina delarik.

✓ Maumendi-Lareoko ingurune naturalean sortzen duen kaltea handia dela (

Aranzadi Zientzi Elkarrekin bertako fauna, flora, egitura geologiko, baliabide hidrologiko eta abarretan izango lukeren eragin negatiboari buruzko txostenean agertzen da: ziklo hidrologikoan egingo den esku sartzeak edateko uren kalitatea arriskuan jarriko du, eta faunari dagokionean nabarmendu okil beltza (*Dryocopus martius*) bezalako babestutako espeziearen habitat zati handi bat galduko dela, Erkidego osoan Aralarko pagadietan dago lokalizatuta eta espezie mehatxatuen katalogoan jasota dago).

✓ Proiektu honek Ataungo herriarentzat emango litzuzkeen etekinak (lanpostu berri bezala edo beste modu batekoak) beste bide batetik bermatzea egokiago litzateke, hau da, gaur egun dauzkagun azpiegitura eta zerbitzuen kudeaketa egokia bultzatuz eta aurrera begira herri ekimenean sustraierako proiektuak jorratuz.

Adierazitako guztiak garbi erakusten du Maumendi-Lareo ingurunean aurrera eramanez nahi den proiektua jasangarritasunaren kontra doala. Ondorioz, aldatu nahi den gune hori gaur dagoen bezala mantentzea egokiagoa da bai ekonomikoki eta bai ekologikoki.

*Asier Auzmendi
(Ataun)*

Abenduaren 20an Ordizian jokaturako Euskadiko txistor lehiaketan 2. egin zuen Beasaingo Mujika harategiko J.I. Mujikak. Txistorraren berri gehiago jakitearren joan gara berarengana.

- Zein ezberdintasun du txistorrak eta txorizoak?

- Ia ezena bakarrik dauka ezberdina. Oinarri berdina daukate biek, hestea dute ezberdina. Txorizoa txerriaren hestearekin egiten da txistorrarena ardiarenarekin. Beste ezberdintasun bat ere badu: txorizoa, egin eta hiru egunera egoten da jateko prest; txistorra hiru eguneko tartean jan behar da.

- Zein osagai ditu?

- Txerriaren urdaiarekin eta haragiarekin egiten dugu, erdibana. Piper hautsa ere botatzen diogu. Material onarekin eginez gero, ona ateratzen da.

- Neurri berezirik ba al du txistorrak?

- Mehexeagoa izaten denez, luzeagoa egiten da.

- Txistorra ala txorizoa saltzen da gehiago?

- Guk txorizoa gehiago saltzen dugu. Txistorra garestixeagoa izaten da, ardi hestea lortzea gehiago kostatzen baita.

- Zergatik jaten ote da txistorra Santo Tomas egunean?

- Ez dakit, ohitura delako.

- Euskal Herritik kanpora egiten al da txistorrik?

- Ez dago ohiturarik. Adibidez, hemendik Bartzelonara eramaten dute, han ez baitute egiten.

- Txistorrari laguntzeko...

- Arrautza pare bat eta ardo piska bat. Askotan ez dago hori bezalako solomillorik.

- Lehiaketek laguntzen al dute salmentak gehitzeko?

- Bai, asko.



J. I. Mujika

**Mujika harategia
Beasain**

Lehiaketa

Galdera

Zein talderekin fitxatu dute Beloki anai txirrindulariek?

Erantzuna urtarilaren 22rako bidali behar da, Ordiziako 124 postakutxara. Bertan izena, helbidea eta telefono zenbakia zehaztuz.

Saria

'El Euskera en la Ribera de Navarra' liburua eta GOIERRITARRA aldizkariaren kamiseta.



**GENERALI
Aseguroak**

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

**Oriako Pasealekua, 20
943 88 87 02
BEASAIN**

IBAI ONDO



AROTEGIA

instalazio berriak

Altzariak neurritan

**Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa**

**Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea**

943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN



Zorion Insaustiren laguntzaz

Dietetika, senda belarrak, iriodologia,
homeopatia, reflexoterapia podala eta
abarretan aditua

Oreka

Dietetika eta
medikuntza naturala

Kale Nagusia, 8

943 88 13 37

ORDIZIA

oreka



BERTAN^{S.L.}
EGUR BILTEGIA

Pipiaren, pitzaduraren eta hezetasunaren aurkako tratamendua

Vacsol produktuaren bidez, altzari, zahar eta berriei, eta bestelako edozein egurri pipiaren, pitzaduraren eta hezetasunaren aurkako tratamendua egiten zaie Itsasondoko Bertan egur biltegian. Vacsolizatzeko makinarekin, egurraren bihotzeraino vacsol produktu naturala sartzen da. Lehenik hutsa eginez, egurrari barruan duen haize guztia ateratzen zaio, poroak irekiz. Ondoren vacsol likidoa bihotzeraino sartzen zaio, eta azkenik berriro hutsa eginez, soberan dagoen Vacsola kentzen zaio egurrari. Honela egurrean barru-barruraino sartzen da pipi, pitzadura eta hezetasunaren aurkako produktua.

Guztiz produktu ekologiko eta naturala da vacsol, pinuaren zainetatik ateratatakoa.



Guztion eskura dago Bertan egur bilketa enpresa. Profesional zein partikularrentzat. Egun batetik bestera prest izango duzu produktua. Eraman-ekarrirako garraio zerbitzua ere badugu.

Garantia

OSOA

*Goierrin
makina
bakarra*

**Itsasondon
bertan**

Telefona:
943 163 102

Helbidea:
Ibai-ondo industrialdea,
5. Pabilioia



Egurra zure neurrira

Egur lanak egin nahi badituzu, zatoz Bertan egur biltegiara. Tarimak, zokaloak, habeak, egiturak... denetik aurkituko duzu bertan. Neurrira ebakita, moldurak eginda, zepilatuta eta vacsolizatuta.



Helena Zubillaga pediatraren eskutik:

Gazte Kontsulta: gazteen sexu arloko kezkak argitzeko gunea Lazkaon

Helena Zubillagak, Lazkaoko anbulatorioko pediatrak, 12-18 bitarteko gazteentzat 'Gazte Kontsulta' ireki du. Gazteek edo nerabeez arduraturik, gazteek sexu arloan dituzten arazoak edo kezkak argitzea du helburu txoko honek. Lazkaoko San Benito ikastolan ere egin ohi ditu sexuari buruzko jardunalditxoak.

Gaztetxoek 14 urterarte izaten dute pediatrarengana joateko aukera baina Helena Zubillagak denbora tarte hori luzatzeko beharra ikusten du. "14 urterekin familiako medikuarengana pasatzen dira. Ezezagunak izaten dira eta adin horretan asko kostatzen da hitz egitea zenbait gaie-taz. Guk pediatrok, gehi-ago hitz egiten dugu", dio Helena Zubillagak. Lazkaon aue-rra hori badute gaz- tetxoek.

1997an etorri zen Zubillaga Lazkaora eta gazteekin lanean jarrai- tzeke aukera ikusi zuen. San Benito ikastolara joaten da

sexuaren inguruko gaiez mintzatu eta gai honen ingu- ruan gazteek dituzten kezkak argitzeko asmotan. Talde txi- kiak egiten ditu eta azkeneko aldian, neskak eta mutilak bereiztu egin ditu. "Neskak isilagoak eta lasaiagoak dira

**Helena,
asteartetan,
eguerdiko 2etatik 3ak
edo 3,30ak arte, 'Gazte
Kontsulta' izaten du
irekita, anbulatorioko
kontsultan.**



gai honetan eta asko eskertu zuten", aitortu digu. "Nes- kak zuhurragoak dira. Ha- rremanetaz gehiago gal- detzen dute. Mutilak, nola eman plazer gehiago neskari, teknika sexualak... eskatzen dituzte. Neskek kezka han- diak izaten dituzte anti- sorgailuen inguruan, mu- tilek berriz ez dute gai honen inguruan ia ezer aipatzen".

Dena den, ikastetxetik kanpora ere atera nahi du gaia eta asteartetan, eguerdi- ko 2etatik 3ak edo 3,30ak ar- te, 'Gazte Kontsulta' izaten du irekita, anbulatorioko kontsultan. Gazteak animatu nahi ditu Kontsultara joate- ko, gazteek, orokorrean, in- formazio eskasa baitaukate sexuaren arloan. Zubillaga- rentzat, informazio egokia izatea oso garrantzitsua eta beharrezkoa da, besteak bes-



MUJIKÁ
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



Silvia Miras Casasayas
Odontologoa. 649 koleg.

Implantologia
Estetikazko odontologia
Haur odontologia
Helduen odontologia

San Ignazio, 8 B - 2. ezk.
☎ 943 88 92 87 **BEASAIN**

VOLVO
TOYOTA



ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN



te, nahigabeko haurdunaldiak saihesteko.

Informazio gutxi

Gazteek, orokorrean, informazio eskasa omen daukate sexuaren arloan. "Askotan gainera, ideia faltsuak dituzte: amodioa egiten den lehenengo aldian haurdun ez dela gelditzen eta abar". Antisorgailurik egokiena zein den, sexu harremanak izaten hasteko adinik egokiena zein den, aurreneko aldia ea mingarria den... dira besteak beste, gaztetxoek egiten dituzten galderak.

Helenaren esanetan, "informazioa oraindik ere peli-

kuletatik jasotzen dute, bideo pornografikoetatik. Etxean ez da gurasoekin sexuaz hitz egiten. Eskoletan ere ez da sexuaren gaia jorratzen. Fisiologikoki lantzen da, emakumezkoen eta gizonezkoen organo genitalak bakarrik ikutzen dira. Ez da erraza eguneroko andereñoak edo irakasleak gai hauetaz hitz egitea. Kanpoko norbaitek egokiago egiten duela uste dut".

Lotsa

Esperientzia honekin pozik dago Helena Zubillaga, nahiz eta askotan zaila izaten den. Oraindik ere, sexuari

"Irtenbidea, informazio egokia edukitzea"

Hurrengo eguneko pilula dela eta ez dela, makina bat zeresan sortu da. Frantzia eskoletan banatzen hasi dira, baina Helena Zubillagarentzat hurrengo eguneko pilula ez da nahigabeko haurdunaldiak ekiditeko irtenbidea. "Batetik, gazteek horrelako arazoren bat badute profesional baten-gana joatea egokiagoa da. Bestetik, hurrengo eguneko pilula ez da soluzioa. Soluzioa da aurretik antisorgailuak erabiltzea eta behar den informazioa edukitzea".

Nahigabeko zenbat haurdunaldi izaten den Euskal Herrian ez dago jakiterik, ez baita datu biltzarik egiten. Dena den, nahigabeko haurdunaldirik gehienak, gazteenetan, lehenengo urteetan, gertatzen omen dira. "Badirudi lotuta daudela alkoholarekin, drogarekin eta heldutasun faltarekin. Ezetz esateko ausardia falta izaten zaie askotan neskei. Dena den, antisorgailuak erabiltzearen aldekoak dira guztiak".

buruz hitz egiteko lotsa dagoela ikusten du pediatrik. "Sexualitatea zerbait zikinarekin, plazerrarekin lotzen da", esan digu. "Badirudi plazerra sentitzea edo bizitzea dela gauza konkretu bat, eta oso lotuta dagoela genitalitatearekin. Harreman sexualak asko lotzen dira oraindik koitoarekin. Gazteentzat oraindik ere, sexualitatea koito batean bukatzeko harreman sexuala da. Ez dago beraientzat beste posibili-

taterik. Eta noski, presio handia sortzen da. Bikoteak orgasmorik ez badu lortzen ona ez naizelako edo hotza delako izaten dela uste izaten dute. Baina ideia hori nola aldatu? Ez daukate benetako eta kalitatezko informaziorik", gaineratu du.

Gurasoen aldetik ere, seme-alabekin sexuaz hitz egiteko lotsa izaten dela nabarmendu du Zubillagak. Beraz, gurasoekin ere lana egin behar litzatekeela uste du.

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



- ✕ LEIHOAK, ATE-AK eta abar
- ✕ ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

YOSUTHERMIK

LEIHO ISOLATZAILEAK

- PVC leihoak
- Aluminiozko hausdura termikodun leihoak
- Aroztegi mistoko leihoak
- Poliuretanozko leihoak



Erakusketa
Ipiñarrieta, 3

☎ 943 725 232 URRETUXU

Fabrikatik zuzenean

Kataide industrialdea, 4 pab.
☎ 943 770 157 ARRASATE

OSKARBI

OINETAKOAK



Mota guztietako
eta adin guztien-
tzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25

☎ 88 19 44

ORDIZIA

Goierriko landa garapen proiektuak saritu ditu Goimen elkarteak

Landa garapenean egindako "ahalegin bat eskertzeko sariak" dira Goimen elkarteak abenduaren 27an Ordizian banatu zituenak. Hiru ataletan, bost sari banatu ditu Goierriko Mendi Nekazaritza elkarteak. Joseba Insausti, Joxe Ramon Arsuaga ordiziarren, Josu Aldasoro ataundarraren, Zeraingo Lumagorri enpresaren eta Asier Galdosen lanari eman diete onarpen sariak. Arantzazuko Artzai-Eskolari ere aipamen berezia egin zioten.

Goierriko udal eta nekazal ordezkari desberdinek osatzen dute Goimen elkar- tea eta 12 urte daramatza landatar guneetan lanean. Azken urteetan nekazaritza jardueren eta landatar inguru- en mantenuagatik apustua eginez garatu dituzten proiektuengatik, entitate edo eta pertsonen ahaleginei onarpen pertsonal eta publi- koa egin nahi izan du Goi- menek. Hori dela eta, onar- pen sariak banatu dituzte, hi- ru arlotan banatuak.

Baserrri eredugarria

Ohiko nekazal jardueretan oinarrituako gazteei zuzen- dua zegoen atal hau. Aldake- ta eredugarriak egin edota produktuari balio erantsi handiago bat ematea lortuko luketen ekimenak saritu dira. Kasu honetan, hiru artzain gazteri eman diote onarpen saria: Ordiziako Jose Ramon Arsuaga eta Joseba Insaustiri eta Ataungo Josu Aldasorori. "Beren gatzetasuna kontuan



Goian: Jon Mikel Murua diputatua, Joseba Insaustiren aita, Joxe Ramon Arsuaga eta Josu Aldasoro.

Erdian: Jon Mikel Murua eta Mari Jose Murua, Lumagorriko gerentea.

Behean: hiru gazte legazpiarrak eta Xabi Akizu Goimeneko lehendakaria.



izanda, behar duten forma- kuntzaz jantzi dira baserrria era egokian joango dela ziurtatzearren. Ardi esnea, gaztara eraldatzeak eskain- tzen duen balio erantsiaz ba- liatu dira, Idiazabal gazta eginez eta Osakidetza eskat- zen dituen baldintza guztiak beteaz. Horretaz aparte, pro- duktuaren merkaturatze zu- zenagoa lortzeko lan egin dute, bitartekaririk gabe,

margen errentagarriagoa edukiaz", dio Goimenek. 250.000 pezeta eta garaikur bana jaso zuten hiru artzain gazteek.

Sarituak artzain gazteak izan direnez aipamen berezia jaso du Arantzazuko Art- zain-Eskolak, "artzain gaz- teentzako formakuntza mo- dulo erakargarriak eskain- tzea lortu duelako, sektorea- ren pizgarri suertatuz".

Garatutako proiektuak

Goierriko eskualdean ohiko- ak diren produkzioetatik kan- po nekazaritza arloan burutu daitezkeen ekimenak saritu nahi izan ditu Goimenek bi- garren atal honetan. Lehe- nengo edizio honetan, Ze- raingo Lumagorri enpresari eman diote onarpen saria, kalitatezko Eusko Labelare- kin baserriko oilaskoak hazi, eraldatu eta merkaturatzea- gatik. "Goierriin kokatzen den eta goierritar jendeak bultzatu duen enpresa da eta eskualdeko baserrietan ongi barneratua dago. Lumagorri erakundeak, baserriko oilas- koekin baserrirako izaten zen produktu batetik, merka- tu kutsua ematen jakin izan du, errenta osagarri garran- tziatsuan bilakatu delarik, Goierriko baserri askotan", zehaztu du Goimenek. 250.000 pezeta eta garaiku- rra jaso ditu Lumagorrik.

Idea berritzaileen sariketa

Nekazaritza jardueretatik kanpo, burutu daitezkeen beste jarduera osagarri be- rrien ekimenak saritu dira atal honetan. 8 proiektu aur- keztu dira eta azkenean, Le- gazpiko Asier Galdosen tal- deari eman diote 100.000 pe- zetako saria. Bartzelonan Paisaigintza ikasten ari dira hiru gazteak. "Proiektuan autoktonoak diren zuhaitz eta zuhaixken baloraketa proposatzen dute. Gure ingu- runeko paisaia eta bioaniz- tasuna mantentzea eta ba- bestea planteatzen dute, eta bertako landareekin oinarri- tutako ugalketa eta merkatu- raketa egin nahi da, era be- rean baserrirako errenta osagarri bat eskainiz".

Arrano Aitz eta Saadar-Aztio mendi kontsortziatuetan inbertsioak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamenduko Foru Diputatua den Jon Mikel Murua Zegaman izan zen iazko abenduaren 29an, inbertsio berri hauen emanaz.

Zegamako Udalaren jabetzakoak diren Arrano-Aitz eta Saadar-Aztio mendi kontsortziatuetan entresakak egiteko hainbat behar zeudela eta (entresaka egin ahal izateko behar-beharrezkoak diren pisten eza) Zegamako Udalak, Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamendua arazo honen jakinaren gaineran jarri zuen bertan oinarritutakoak ziren inbertsioak egin zitzaizkien eskatu ziolarik eta eskaera honi erantzunez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamenduak, bi urteren buruan mendi horietan pistak egiteko konpromezua hartu zuen 2000. urtean.

Bi mendi hauetako partizipazioa era honetara banatzen da: Zegamako Udala %45 eta Gipuzkoako Foru Aldundia % 55. Esan mendi hauetan 30 urte inguruko larizioa dagoela eta dagoneko entresaka hau egitea oso beharrezkoa dela.

Arrano Aitz

Arrano Aitzen pistak irekitzeko hiru fase aurrikusi ditu Foru Aldundiak:

1. fasea: Arrano Aitz mendiak 60 Ha.tako azalera du, eta lehen fase honetan 5 kilometroko pista ireki du Foru Aldundiak, berau 2000. urteko aurrekontuen kontura



Jon Mikel Murua Ingurugiro eta Nekazaritza diputatua eta Ignazio Galdos alkatea.

egin delarik eta lanak ere iazko urte bukaeran gauzatu ziren. Guztira 7.000.000 pezetako inbertsioa egin da.

2. fasea: Aurrekoez gain, beste 3,5 kilometro egingo dira Arrano Aitzen 2001 urtean. Hau ere 2000 urteko aurrekontuetan jasota dago. Pista honen kostua 9.000.000 pezetakoa izango da.

Pista hau Arrao Aiztik Bostaizetara joango da. Esan behar da, duela gutxi Udalak erosi berri duen Txermatxo saila ere azpiegitura aldetik koxkor zegoela eta pista berri honekin arazoa bideratua gelditzen dela.

Bigarren fase honetan Elor-Txikin egingo da pista, berau 5 kilometrokoa izango da eta 2001eko aurrekontuen kontura finantzatutako da. Exekuzioa ere aurtengo izango da. Pista honen aurrekontua 13.000.000 pezetakoa da.

Beraz, Arrano Aitzen guztira 29 milioiko inbertsioa egingo da 2000 eta 2001 urteetan.

Guztira beraz, Udalak 150 Ha. hauetan 150 milioiko balorea baduela esan behar gaur egun eta egindako inbertsioak direla eta, beste 40 urteren buruan mendi hauen balorea bikoiztu egingo da, etorkizunerako azpiegiturak eginda geratzen direlarik.

Bestalde, Udalak, bere jabetzakoak diren gainerako mendiak 'erabilpen publikoan' sartzeko eskaera egin du eta mendi hauetan ere aurrean hasiko dira inbertsioak.

2001ean landaketak egingo dira. Gutxi gora-behera 20 Ha landatuko dira hilabete hauetan, 10 milioiko kostuarekin.

Honenbestez, Zegamako Udalaren mendietan 2000-2001 urteen buruan 48-50 milioi inbertitutako dira. Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamenduak egindako esfortzua eskertzeak gain, azpimarratzekoa delarik.

Aztio-Saadar mendiak

Zegamako Udalaren jabetzakoak den mendi honek 9 Ha. inguruko azalera du. Mendi hauetan ere larizio motako 30 urte inguruko pinua dago. Mendi honetan 8 kilometroko pista egingo da 2001 urtean, berauk 9.000.000 pezetako aurrekontua duelarik. Lan hauek fase bakarrean gauzatu dira.

Gazteentzat bilera

Gaur, urtarrilak 12, arratsaldeko 7etan eta Kultur etxeko bilera aretoan Udalak antolatutako Gazte Plangintzaren barruan Siadeco enpresak egin behar duen ikerketaren aurkezpena izango da. Bileraren helburua, Zegamako gazteek dauzkaten beharrak aztertzeo prozedura ezartzea da.

Egur tailaketa eta bertsolaritza ikastaroak

Kultur etxeak egur tailaketa eta bertsolaritza ikastaroak antolatu ditu. Izena emateko epea, urtarrilaren 19an bukatuko da. Udaletxean egin behar da izen ematea.

Eduarne Albizu



Iñaki Agirre Gipuzkoako txapeldun berria

Kadete mailako Gipuzkoako atletismoko txapelketak joan berri zaigun abenduaren 23an ospatu ziren. 60 metro eta 300 metroko pobretan protagonista Iñaki Agirre herritarra izan zen, Donostiako Beldromoan bi proba horiek irabazi ostean Gipuzkoako txapela lortu baitzuen bietan ere. Orain Euskadiko txapelketan parte hartzeko prestatzen ari omen da Iñaki. Biondeiala Iñaki eta zorte on!

Aerobic

Hiruhilabete berria hastearekin batera zenbait berrikuntzen berri eman digu Pako Urrestarazuk. Orainartean aerobic-ean talde bakarrak jarduten bazuen ere, orain bigarren talde bat ere sortu da. Aurreko hiruhilabeteke egunak mantentzen dira, hau da, asteazken eta ostiralak. Lehenengo taldea iluntzeko 7etatik 8etara jardungo da eta bigarrena, 8etatik 9etara.



Iñaki Agirre.

Bestalde, Ataungo Kirol elkartearen saskia 3.101 zenbakiaren jabeari suertatu zitzaion, San Gregorioko Josune Galparsorori hain zuen ere.

Hileta

Joan den astean hil zen 74 urte zituen Maria Mujika Zerberio. Doluminak sendiari.

Agurtzane Bikuña



Idazkari aldaketa Udalean

1980 urtean, udalek gaur egun direnaren antzik ere ez zutenean, administrazioa boligrafoan, idazmakina zaharretan eta bertako langileen borondate onean oinarriturik zegoenean, Ezkio-Itsasoko Udalera Zeles Otamendi ordiziarra iritsi zen idazkari postua betetzera. Ordutik lehen pertsona bizi izan ditu herriak somatu dituen aldaketak eta garapena.

Berez, Zeles Otamendi Ormaiztegiko Idazkari titularra zen, baina Ezkio-Itsasoko idazkari plaza hutsik zegoenez bera izan da orain arte lanpostu hori leialtasun osoz bete duena.

Legareen arabera Udalak urtero deialdia zabaldu izan du hutsik zegoen plaza betetzeko helburuarekin. Joan zen urterarte, legeak eskatu-

riko baldintzak betetzen zituena pertsonarik aurkeztu ez bazen ere, aurtengoan Idiazabalgo Martin Iparragirre aurkeztu da eta eskakizun guztiak nabarmen betetzen dituenek, berak eskuratu du plaza. Beraz, hemendik aurrera Martin Iparragirre izango da Ezkio-Itsasoko idazkaria. Ongi etorri Martin!

Datorrenari ongi etorria ematearekin batera, ezin ahaztu azken hogeitau urteetan egunero gure artean izan duguna. Ezkio-Itsason bere lana zintzo bete ondoren, aurrerantzean Ormaiztegiko Udalean emango ditu bere lanordu guztiak Zeles Otamendik.

Eskerrik asko eta zorte on Zeles!

Joseba Etxezarreta

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarateko, pintxoak

Nagusia, 27



943 88 20 07

BEASAIN

Autowag, s.a.



943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



Gabon kontuak

Aurtengoan ere Gabon egunean herritarrak etxez etxe ibili ziren kantari bi taldetan. Alde batetik Guraso elkarteak antolatuta herri eskolako haurrak eta beraien gurasoak, herri kaskoan ibili ziren eta bestetik katekesi eta kultur

elkarteak antolatuta gazte eta helduak, herriko baserri guztietara iritsi ziren.

Kantari hauen ahalegina ondo saritua izan zen, izan ere denen artean 315.000 pezeta bildu zituzten, diru hau urtean zehar ekintza ezberdi-

nak egiteko erabiliko dituzte nola batzuk ala bestee.

Iluntzean Olentzeroren etorrera ere izan zen, azken urte hauetan ohiko den bezala, astoz tiratutako gurdi batean etorri zen. Soinuz eta kantuz egin zitzaion harrera

eta agurra Olentzerori, haurrei opariak eta hurbiltzen zen edonori gaztaina erreak eta ardoa banatu zizkien Olentzerok ordu erdi inguru iraun zuen festa honetan.

Mari Flor Mendizabal

Informatika gela eta liburutegia

Liburutegian gela bat informatika gela bezala prestatu da, lau ordenagailuz hornitua eta internet konexioarekin. Gabon oporren ondorenean ireki da gela hau.

Liburutegi eta informatika gela astean zehar egunero irekiko da bertan edozein kontsulta egin nahi duenarentzat. Ondorengo ordutegia izango du: astearte, asteazken eta ostegunetan, seietatik zortzietara; larunbatetan, hamaiketarik ordubatera.

Ordutegi hontaz kanpo, bertan informatika ikastaroak antolatuko dira herritarrentzat, eta hasteko Windows 98, Word eta interneti buruzko oinarritzko ikastaro bat emateko asmoa dago. Interesatuta daudenak liburutegiko arduraduna den Miren Makazagarekin harremanetan jarri daitezela.

Kultur etxeko batzarra

Urtarrilaren 14an eguerdiko 12etan, Kultur etxean izango da urteko batzarra, eta bertan egingo da informatika gelaren aurkezpena.

Urtarrileko haurrentzako bideo emanaldiak

Guraso elkarteak jakinarazi duenez ondorengo bideo emanaldiak izango dira igandetan. Denak Herri Zine-man izango dira, arratsaldeko 5etan.

Urtarrilak 14: 'Un indio en Paris'.

Urtarrilak 21: 'Manolito gafotas'.

Urtarrilak 28: 'Stuart little'.

Heriotza

Javier Fernandez herritarra, auto istripuan hil zen abenduaren 30an. Bi autok aurrez aurre jo zuten eta Javier momentuan hil zen. 33 urte zituen.

Arkupe
tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredolak
Mantak - Malmalreak - Storeak
Toallak - Gortinak eta osagaiak

J. M. Barandiaran Plaza

943 88 00 84

ORDIZIA

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkarpeko zentzua: E-2644

RPS: 420/95

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA

943 887 221

610 020 041

BEASAIN

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako baimenak:

B, B+E, C, C+E, D, D+E, A1 eta A

Aita Urdaneta ORDIZIA

943 88 72 76

285 milioiko aurrekontua 2001 urterako



Herriko sarrera berritzeko lanak aurtan hasiko dira.

Udaleko taldeek ahobatez onartu zuten abenduko ohiko plenoan urte honetarako 285 milioiko aurrekontua. Kopuru horretatik, 84 milioi inbertsioak egiteko erabiliko dira, gainontzekoa, urteroko gastuei aurre egiteko. horren baitan, aurtan lehendabiziko aldiz Pilar Eneako eguneko zentruari zuzendutako aurrekontua dago, 7 milioikoa. Horrezaz gain, langabezia dauen herritarrei lana emateko 4 milioi erabiliko ditu Udalak.

Inbertsioei eskainitako atalean, 84 milioien zatirik handiena, Zigor auzoko urbanizazioari dagokio. 50 milioi aurreikusi dira auzo horretako urbanizazio lanen bigarren zatia egiteko. 10 milioi, baserriari lotutako azpiegitura eta bestelakoak egin eta berritzeko erabiliko dira. Ursuarango eliza pinta-

tzeko bi milioi eta erdi erabiliko dira. Goiekik abian jarriko duen Spri Lur proiektuari 5 milioi emango dizkio Idiazabalgo Udalak. Proiektu horren helburua, Goierriko industria kudeatuko duen elkarte sortzea da.

Urte honetan gauzatuko diren lanekin batera, aurrera begira egin nahi direnak prestatu eta horien proiektuak egiteko bost milioi era-

biliko dira. Aurtan, bi proiektu jarri nahi ditu martxan Udalak. Lehena, Arizkorreta futbol zelaitik hasi eta herri sarrera bitarteko bide berritu eta egokitzea.

Oraindik proiektua egin gabe dagoen arren, Arizkorreta inguruan rotunda bat eta apartakalekuak egiteko asmoa dago. Lan horiek aurtan bertan hasi daitezke, aurrekontuetan, obraren proiektua egiteko diruaz gain, lanak hasteko 8 milioi erabiltzea aurreikusten baita.

2001 urtean, abian jarri nahi den bestea, kultur ekitaldietarako eraikina da. Pilar Enea eta haren ondoan eraiki berri dituzten etxebizitzaren artean kokatu nahi du udalak areto berria. Aurtan proiektua egin, eta datorren urtean hasiko lirake lanak.

Xabier Urteaga

San Blasak

Urtarrileko azkeneko asteburuan hasiko dira festetako ekitaldiak. Hilaren 27an, herriko tabernarien ekimenez musika izango da. Igandean, ohikoa den moduan Herri krosa. Astebaruko atsedenearen ondoren, kandelari egunean ekingo zaie ospakizunei, otsailaren 4a bitartean.

San Blas jaien hasiera emateko pregoia lehiaketa antolatu du Festa Batzordeak. Herritarrek solilik hartu dezakete parte lehiaketan, banaka, nahiz taldeka. Pregoa idatzita eta nork antzetzuko duen adieraziz aurkeztu behar da udaletxean urtarriaren 23a baino lehen. Irabazleari, 25.000 pezetako saria emango zaio.

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43

943 88 01 33

BEASAIN

GESTORIA BIOK

ASEGURUOK

- * Aholkularitza laborala eta fiskala
- * Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA



**Barandiaran
ZERAMIKAK**



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 **Senpere, 7 BEASAIN**

Eulalia Garmendiak

100 urte

Bera da herritar zaharrena

Eulalia Garmendia Zuriarrainek 100 urte beteko ditu etzi. 1901. urteko urtarilaren 14an jaio zen Eulalia Gaintzako Etxaiz baserrian, eta 1929ko irailean ezkondu zen Juan Inazio Garmendiarekin Gaintzako elizan bertan. 40 urte inguru zituela alargundua eta zazpi seme-alaben ama, -egun, hiru daude bizirik- Zaldibiako Aztia etxean bizi da. Jaso dezala lerro hauetatik Zaldibiako herriaren besarkada eta zorion agurrik beroena.



Patxiko eta Eleuteria: 70 urtez ezkondua



Auntxieta-Teleiko Patxiko Irastorza Murua eta Eleuteria Sukia Arruabarrena ezkondu zirela 70 urte bete ziren urtarilaren 10ean. Zaldibiako Santa Fe parrokian ezkondu ziren hemendik gutxira 95 urte beteko dituzten herriko senar-emazte zaharrenek. Ea jarraitzen duten beste urte askotan.

Heriotza gehiago aurten

Amaitu berri den urtean ere, azkenekoetan bezalaxe, herritar gehiago izan dira gure artetik alde egin dutenak etorri direnak baino. Hala ere, eta berri pozgarri gisa, hamar zaldibitar berri berri jaio dira 2000n. Hauxe da hildako eta jaiotako herritarren zerrenda:

Hildakoak (14):

Lorenzo Arruabarrena Irastorza
Meltxor Azketa Gorostiaga
Juan Jose Etxezarreta Amundarain
Felisa Escriña Sanchez
Maria Garziandia Jauregi
Josepa Garmendia Arruabarrena
Antonio Garmendia Garmendia
Felix Lasa Urretabizkaia
Victoria Mendizabal Jauregi
Alejandro Mendizabal Murua
Santiago Mendizabal Zunzunegi
Jose Murua Olano
Maria Pilar Salaberria Razkin
Juan Sukia Murua

Jaiotakoak (10):

Dunia Aziz de Marcos
Iker Arruabarrena Begiristain
Julen Dorronsoro Balerdi
Itxaro Estanga Urkola
Garazi Etxabe Arizmendi
Maria Garmendia Soto
Itsaso Gorospe Intsausti
Ainitze Mendizabal Azpiroz
Maddalen Regil Aiestaran
Ekain Regil Etxabe

Saroi Jauregi
Inaki Gurrutxaga



LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN

Udalak sustatutako etxebizitzaren salmenta



ALTZAGA
AZKEN ETXEBIZITZAK!

Guztira 180m² + lorategia

Informazioa:

Lanegunetan: 943 16 21 92

Larunbatetan: Altzagako Udaletxean (10:00-13:00)



Urte Zahar eguneko karrera

Zer hobe urteari amaiera ona emateko festa antolatzea baino? Bada, horixe izan zen Urte Zahar arratsaldean gurean. Iazko asto karreraren arrakasta ikusirik, zerbait egitea bidezkoa izango zela pentsatu eta gazte kuadrila

bati sekulako ideia okurritu zitzaion: karretila karrera burutzea.

Arratsaldeko bostetan Zuzulan prest zeuden sei bikote, Olentzeroren antzera jantzita eta aurrean karretila baina zutela. Egitekoa: laguna



Kirolari gazteak

Makina bat sari ekarri dituzte herriko zenbait gaztetxok opor egun hauetan. Ordiziko San Silbestre lasterketan Leire Muruak txapela eta garaikurra jaso zituen, egindako lehen postuaren agiri. Hori gutxi balitz, Errege egunean, Donostiako proban, bigarren sailkatu zen. Beñat Maiz eta Iñigo Igartzabal ere bigarren eta laugarren sartu ziren Ordizian, euren kategorietan.

Pilotaren esparruan, Zumarragako txapelketan azpitxapel-dun geratu ziren Iñigo Murua eta Gorka Maiz. Ez daitezela aurtengo azkenak izan sari hauek.

gainean hartu eta txandak eginez Gabiriarraino zein lehenago iritsi. Ordekan karretilarekin ibiltzea neketsua bada, pentsa kaskorako aldapan! Euripean egin behar izan zuten bidea, gainera.

Berrehun metroko aldaketa egin beharra zeukaten, eta noski, bikoteko bat beti gainean joatea derrigorrezkoa zen. Izerditan eta arnasestuka, baina guztiak iritsi ziren herriraino, eta ez txantxetako markekin. Irabazle Eñaut eta Josu izan ziren, 14 minutu eta erdian erlojua geldituz; bigarren Oier eta Joseba, ha-

mar bat segundu geroago; eta hirugarren Jon Ander eta Maiora, 15 minutu pasatxo-rekin. Beste hiru bikoteak ere ez ziren txoriei begira egon, 18 minutu inguruan helmugaratu baitziren.

Markak marka, eskertzea eta meritu handikoa da gazte hauen lana, festa jartzeko aitzakian izugarrizko ahalegina egin baitzuten, horrelako gogortasuna duen proba bat egitea ez baita partehartzaileentzat hainbesteko festa.

Aimar Maiz

JOS & BEL

ILEAPAINDEGIA

BEZEROEN ARTEAN GABONETAN EGINDAKO ZOZKETAN SARITUAK

Uxua Jauregi (Antzuola)
Arantxa Arostegi (Ordizia)
Mari Karmen Ulloa (Ordizia)

Teo Bastarrika (Ordizia)
M^{re} Jose Leunda (Alegia)
Pili Aldasoro (Ordizia)

Gabonetako peri jendetsua

Eguraldia lagun, jende ugari bildu zen herriko kaleetan urteko azken peri berezian. 250 postutik gora ipini ziren Urdaneta kaletik hasi eta Foruen Pasealekua bitartean. Ohiko barazki postuez gain bestelako mordoa ere ikus zitezkeen (ahate gibela, ogi, oinetakoak, belarrak, ardi eta ahariak...). Pilotalekuan ere ohiko bihurtu diren indioilar, oilo, oilar, ahate eta kapoiak ikus zitezkeen, atarian bigantxak, basurdekumeak eta oreinak lagun zituztela. Hainbeste gauzeekin bazuten zer ikusia bertaratu ziren guztiek.

Peri berezia izaki sariketere izan zuten euren lekua. Honela Gipuzkoako III. Odolki Txapelketan aurkeztutako 28 odolki desberdinetatik Aiako Karlos Lekube harakinak aurkeztutakoa izan zen lehen saria eraman zuena. Aipatzekoa berau izan zela baita ere aste bat lehenago txistor lehiaketan irabazle izan zen harakina. Juan Inazio Mujika ordiziarrek aurkeztutako odolkiarentzat izan zen bigarren saria eta laugarren eta seigarrena, berri, Jose Antonio Mujika eta Juanjo Aranzegi herritarrentzat.

Errezil sagarren lehiaketan lehen saria Gabiria aldera joan zen, Isabel Zumalakarregiren eskuetara hain zuzen. Fruitu lehorren artean, aldiz, lehen saria Anttoni Murgiondo gabiriarrarentzat izan zen. Astero Enparantza nagusira etortzen direnen ar-

tean lehen saria Baliarraingo Maria Jesus Mujikarentzat izan zen. Frutei dagokienez lehen saria Hernaniko Manu Iradik eraman zuen.

Hau guztiaz gain baserrietan lan egiten duten gazteak ere saritu zituzten egun berezi honetan. Honela Jose Ramon Arsuaga eta Joseba Insausti ordiziarrek Josu Aldasoro ataundar artzainarekin batera jaso zituzten sariak.

Gabonetako postal eta idazlan lehiaketa

Goiztiri AEK-k Jakintza eta Urdaneta-Oianguren ikastetxeetako ikasleen artean antolatutako postal eta idazlan lehiaketako emaitzak jarraian datozenak izan dira: postal lehiaketan bi ikastetxeetako 5, 6 eta DBH.1-eko ikasleek hartu dute parte eta gaiak eguberri edota gabonekin zerikusia zeukan. Jakintza Ikastolako ikasleen artean DBH.1-eko Xabier Arañarentzat izan da lehen saria eta bigarrena, berri, 6. mailako Lander Sarasolarentzat. Urdaneta-Oianguren ikastetxe-



ko lehen saria, berri, 5. mailako Xiker Hildagorentzat izan da eta bigarrena 6. mailako Alazne Furundarena-rentzat.

Idazlan lehiaketari gagozkiolarik eta gaia librea izanik, lehen saria Jakintza Ikastolako Iñaki Valeroren "Mustafa, nire laguna" lanarentzat izan da, bigarrena Oianguren Ikastetxeko Aiora Garmendiaren "Badakik, espetxea" lanarentzat eta hirugarrena Jakintzako Ainhoa Jimenezentzat. Guztiek ere sari gisa Lazkaoko Gerriko liburudendan materiala eros-teko tikeak izango dituzte.

Pronostikoak betez

Sekulako partehartzea izan zuen urte amaieran jokaturako San Silbestre probak. Gaztetxoan mailetak lasterketak izan ziren aurrena eta helduena ondoren. Azken honetan 300 korrikalarik baino gehiagok hasi zuten proba eta guztion artean, pronostikoaz betez, iazko irabazle bera izan genuen nagusi, Jose Antonio Blanco herritarra hain zuzen. Honen atzetik, Jose Javier Cuadrado sartu zen, ordiziarra hau ere eta hirugarrena Manu Hurtado beasaindarra izan zen. Emakumezkoen artean Alaitz Etxeberria azpeitiarra nagusitu zen Onintza Zeberio herki-daren aurretik eta hirugarrena

Ordiziako Maider Gaztañaga sailkatu zen. Proba nagusi hau hasi aurretik Glori Guerrerok plaka bat jaso zuen orain dela gutxi Josetxo Imaz bere senarraren galera jasan izanagatik eta honek atletismo munduan egindako lan guztiaren ordainez.

'Tortzi' etxean

Zazpi urtetik gora herritik kanpo espainiar estatuko hainbat kartzelatan ibili ondoren etxean dugu berriro ere Asier Irastorza 'Tortzi' 28 urteko herritarra. Merezitako harrerak egin ondoren omenaldia ere egingo zaio herritar gazteari urtarilaren 14an.

Ordizian-en irudi berria

'Ordizian' Ordiziako Merkatarien Elkartek logotipo eta era berean maskota berria aurkeztu berri ditu. Logotipoak Enparantza Nagusiko zutabe baten kapitela hartzen du oinarritzat, hori bai erabateko modu sinplean eta maskota zutabea bera izango da. Maskotaren izena 'Zutarin' da. Proiektu berriaz josita ekingo diote urteari Ordizian Merkatariei Elkarteko kideek. Hastezko euren aldi-zkariko lehen alea kaleratu berri dute.

Aitor Calvillo

Ikastolako ikasleen zozketa

Jakintza ikastolako DBH 4.ekoko ikasleek gabonetako azoka bereziko egunean, abenduaren 27an, egin zuten zozketan 2505 zenbakia izan zen saritua. Saria eskuratzeko Jakintza ikastolara deitu behar da 943 16 05 40 telefonora eta Nereagatik galdetu.

Intxaurrondotik Garaiz-era lazkaotarrak jantziz

Eguberriak pasa eta orain beharpenetan buru belarri sartuta dabilta Arantxa eta Nekane Garmendia. Herritar guztien hitzetan dabil oraindik ireki berria duten denda. Intxaurrondo zaharretik aldaketa nabarmena egin dute, baita izenean ere orain Garaiz jarri baitiote 'Garmendia ahizpak'-en laburpen gisa.

Batez ere eguneroko arropa izaten dute, sport arropa nolabait esateko. Gazteen-tzat, emakumeentzat eta gizonetakoentzat arropak dituzte. Etxeko eta barruko arropak ere badituzte: izara, manta, lentzereia, bata...

Denda berria jartzeko asmoa aspaldidanik zuten, "eskatu egiten zuten, herri erdian geuden baina nahiko bazterrean eta gainera txikia zen denda. Beti ere berritu beharra dago. Gainera gure ilusioa beti izan da herrian denda eder bat izatea, leku egokiagoan. Orain arte ez da aukerarik izan, Lazkaon dendak jartzeko oso lokal gutxi baitzegoen", diote Garmendiarrek.

Herritarren aldetik harrera ona izan du denda berriak. "Beti ere nobedadeak gustatzen dira, gainera eguberriak izan dira eta mugimendu handiko egunak izaten dira. Orain ikusi beharko dugu, baina, gu ere saiatu beharko gara ondo lan eginez", diote.

Nekane eta Arantxaren aita Joakin herriz herri eta ba-

serriz baserri ibiltzen zen arropa saltzen eta 1955ean Intxaurrondo etxean izen berdineko denda jarri zuen. Han batez ere oihalak saltzen zituen. Eta gero jendeak eskatzen duenaren arabera aldatzen joan dira. 1979an Uhaitz kalera pasa ziren, hasera batean almatzen bezala



erosi bazuten ere 21 urte egin dituzte bertan. Geroz eta egindako arropa gehiago eta oihala gutxiago salduz. Gaur egun, berriz, dena egindakoa saltzen dute. Abenduan ireki zuten Hirigoien kaleko denda ikusgarria. Aldaketa handia izan da.

Erosleen ohiturak ere aldatuko ziren denda bezalaxe. "Asko aldatu da jendearen erosteko modua, moda askoz gehiago jarraitzen da. Hori dela eta, asko mugitu behar da, denboraldi bakoitzerako arropa egokia ekarri ahal izateko. Gaur egun, denboraldirako bakarrik erosten dute batez ere emakumeek".

Gaur egun geroz eta gehiago mugitzen gara batera eta bestera, Garmendia ahizpek, berriz, herriaren aldeko apostua egin dute. "Jendea denerako dago, gaur Donostian erosiko du eta bihar Ordizian, baina, guk baditugu bezeroak eta bagenekien erosleak izango genituela. Hori bai, jendea gustora atera behar da dendatik berriro etorri ahal izateko. Bezeroari lagundu egin behar zaio erosten, gustoko duena aurkitzen".

Dendek beti ere herriari animazioa ematen diete, eta alde horretatik jendearen esker ona jaso dute. Beti zerbait erosteko herritik atera beharrik ez izatea ere eskertzen dela uste dute Arantxa eta Nekane.

Ataundik eta inguruko zenbait herrietatik ere etortzen zaizkie bezeroak, eta orain denda berriarekin oraindik gehiago sumatu dute. "Goierritarra aldizkarian ikusita edo lagunen bidez jakin dute dendaren berri eta etorri dira".



Bideo lehiaketako saria Oñatira

Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartek antolatutako bideo lehiaketaren irabazleak abenduaren 15ean jakinarazi ziren. Oñatira joan zen 25.000 pezetako saria, 'Nora hoa, Bixente' fikziozko lanarentzako. Aitor Arregi da bideoaren zuzendaria. Epaimahaia honakoek osatu zuten: Jexux Etxeberria, Juan Mari Zeberio, Iñaki Belamendia eta J.M. Ormazabal, ataundarra lehena eta lazkaotarrak best hirurak.

Akzesita, berriz, herrian geratu zen. Ros Intxaustik eraman zuen saritzat zegoen bideo zinta. Honen bideoa erabat bestelakoa da, Lazkaomendiko Iztueta baserrian sagardoa nola egiten duten azaltzen da bertan.

Astotxo egun arrakastatsua

Eguraldi ona lagun, jendetza handia hurbildu zen Astotxo egunean. Zawopik Zelaian egiten duen antzezpena beti bezain arrakastatsua izan zen. Plazan, berriz, Ansoategik antolatutako 2. Gipuzkoako asto lehiaketan 56 astok parte hartu zuten. Lehenengo saria Urretxuko Olegi baserrira joan zen, bigarrena Beasaingo Basarte baserriko Joxe Martin Odriozolaren astoarentzat izan zen. Euskal astoaren saria Olaberriako Iriarte baserriko Joxe Martin Odriozolarenak eraman zuen.

San Sebastian jaiak Garinen

Urtarrilaren 20 eta 21ean Garin auzoan San Sebastian jaiak ospatuko dira. Jaiei hasiera kanpaiek eta suzirik emango diote **13:30ean**. Ondoren Auzo-elkartean herri-bazkaria izango da **14:00etan**, eta jarraian Ekaitz Goikoetxea eta Aitor Sarriegi bertsotan entzuteko aukera izango da. Arratsalde parterako,



mendi-bizikleta lasterketa antolatu da auzoko gazteentzat. **17:00etan** emango zaio hasiera eta ordubate beranduago berri, auzoko txikientzat haur-jolasak antolatu dira.

Igandean, **10:30ean** goiz-eresia izango da Beasaingo udal txistulariekin. Ondoren Meza Nagusia izango da **11:00etan**, 'Aingeru-meza' abestuko delarik. **12:00etan** auzoko zaharrenei omenaldia egingo zaie, loreak, aureskua eta eskuerautsiak eskainiaz. Omenduen artean izango da, 104 urteko Plazida Intxausti, herritar zaharrena ere. **12:30ean** Ostadar dantza-taldearen emanaldia ikusteko aukera izango da Plaza Zaharran. **13:00etan** auzoko gaztetxoek pilota partidak jokatu dituzte. Aurtengo San Sebastian jaiei amaiera, arratsaldean Auzoko Elkartean izango diren trikitixa eta musikarekin emango diote.

Odol ataraldien balantzea

Odol-emaileen Delegazioak jakinarazi digunez, 2000. urtean 1042 odol ateratze egin dira. 17 saio egin dira, eta batzuetan emaitza ona dela adierazi dute: saio bakoitzeko 61en bat ateratze. Martxoa eta irailek dira hilabete onenak odol ateratze kopuruari dagokionean. Batzuetan 75 pertsonen eman baitute odola. Abendua da berri, jendea odola ematera gutxien hurbiltzen den hilabetea. 43 odol ateratze egin ziren hain zuzen ere. Datu hauek 1999. urtekoekin alderatuz gero, ia berberak direla esan genezake. Hiru odol ateratze gutxiago besterik ez ziren egin 2000. urtean. 53 emaile berri egin ziren iaz.

Hurrengo odol ateratzea urtarrilaren 30ean egingo da Urbi-etxekeko lokalean, arratsaldeko 6etatik aurrera. Ohiko emaileez gain ea beste norbait ere animatzen den!.

Labur-labur

Ekaitz eta Irati Goikoetxea anai-arreba beasaindarrak nagusitu dira XVI. Mutriku Bertsopaper Lehiaketan. Helduetan, Ekaitz Goikoetxeak irabazi du, 'Ai Itoiz, Itoiz, basoilarrak ez du kanturik Iratiko basoan' bertso-sortarekin. Hemezortzi urtera artekoetan berri, Iratik irabazi du lehen saria, 'Liburuaren erraietan' izeneko lanarekin.

XXVII. San Silbestre kros lasterketa keniarak izan ziren nagusi ia 200 partaideen artean. George Okuoro izan zen garaile 26,04 denbora beteaz. Emakumezkoen artean berri Natalia Azpiaz gailendu zen 32,07 denborarekin. Herritarren artean lehena helmugaratzen Manu Hurtado izan zen. Nesketan, lehenengo herritarra, eta bakarra, Aratz Aranburu izan zen.

Errege Kopako txapelketa kanpo gelditu da Beasaingo futbol taldea. Urtarrilaren 3an Loinatz futbol-zelaian Zaragozaren aurka 0 eta 3ko emaitzaz galdu zuen.

Orientazio programako jardunaldiak

Txindoki-Alkartasuna Institutuak, batxilergoko bigarren mailako ikasleen gurasoei zuzenduriko Orientazio Jardunaldiak antolatu ditu. Jardunaldi hauen helburua, gurasoei beren seme-alabek etorkizunean burutu beharko dituzten ikasketen buruzko informazioa izatea da. Unibertsitateko irakasleek eta beste zenbait erakundeetako ordezkariak emango dituzte hitzaldiak hauek Institutuko Areto Nagusian. Agendako orrietan duzue hitzaldien informazio zehatza.

Ikastaroak Asmuberen eskutik

● **Alzheimer** buruzko 14 orduko ikastaroa izango da astelehenero, urtarrilaren 15ean hasita, arratsaldeko 6etan.

● **Hariarekin egindako lanak** egiten ikasiko dituzte urtarrilaren 16an arratsaldeko 5,30etan hasi, eta asteartero,

22 orduko iraupena izango duen ikastaroan.

● **Pachwort** ikastaroak 36 orduko iraupena izango du. Urtarrilaren 16an hasi eta asteartero izango da arratsaldeko 6etan.

● **Eskulanak** 38 orduko iraupena izango du. Urtarrilaren 17an hasiko da eta asteazkenero emango da arratsaldeko 5,30etan hasita.

Kirol txartela

Antzizar Kiroldegiko Kirol txartela egiteko edo berritzeko aukera dago egun hauetan. Bi txartel mota daude: 'Plus' eta 'B' (igerilekurako txartela). Familiako txartela ateraz gero, merkeagoa ateratzen dira bai bata, zein bestea. 18 eta 25 urte bitarteko gazteek, Gazte Txartelaren bidez, % 50eko beherapena izango dute. Arazo ekonomikoak dituztenek ere, udaleko Ongizate sailarekin harremanetan jarrita, merkeagoa izango du te kiroldegirako sarrera.

Nekane Altuna

2001erako udal ikastaroak

Udaleko Hezkuntza eta Kultura batzordeek ondorengo ikastaroen eskaintza egin dute aurtengo urterako:

- **Buztina-zeramika.** Ezkioko Pott taldeak emana.
- **Alto lizo teknikaz tapetak egitea.** Jon Iturrarte zegamarrak emana.
- **Egur, eskaiola, metal... pintura dekoratiboa.** Isabel Garmendia legazpiarrak emana.
- **Marrazketa eta pintura.** Joxemari Telleriak.
- **Eskulanak** (joste lanak, makramea...). Iñaxi Urreta zegamarrak.
- **Egur tailaketa.** Jabier Arrieta zegamarrak.
- **Solasaldi-terapiak.** Olga Padrónen eskutik. Hiru gai, erdaraz: 'La adolescencia y la sexualidad', 'Técnicas de estudio y mejora de la memoria' eta 'Escuela de padres (conocimiento del niño/a)'.

Azken ikastaroa 15 ordukoa izango da. Gainerakoak 30ekoak. Lehen 3 ikastaroak urte hasieran izango liriteke eta besteak aurrerago.

Ikastaroetan parte hartze-ko interesatuek urtarrian eman behar dute izena udal-tertxean. Taldea osatzeko 10 lagun elkartu beharko dira. Ordutegia eta egunak taldeak berak erabakiko luke. Udalak matrikularen % 25a subentzionatuko die ikasleei. Beste ikastaroren baterako interesa izanez gero edo informazio gehiagorako udal-tertxera deitu, 943-801006 telefonora.

Iazko eskaintzako egur tailaketa eta eskulan ikasta-

roak hilabete honetan bukatuko dira.

Argazki erakusketa

Rafael Berasategik munduan zehar egin izan dituen bi-daietan ateratako argazkiekin erakusketa antolatu du. Abenduan hasita ekainera arte hainbat erakustaldi egingo ditu: Uganda-Tanzania-Kenia, Peru-Ecuador, Birmania, Tibet, Nepal, Pakistan, Txina eta Tailandia. Argazkiak Atsedeen jubilatuen elkartearen erakutsiko dira.

Jakoba Errekondo herritarrekin

Arazoak, kezkak, aportazioak... jaso eta ezagutu asmoz, herriko talde politiko, elkarte eta erakundeekin elkartzen hasia da Jakoba. Edozertarako asteazkeneko udaletxean edo herrian egingo da goizez eta arratsaldean.

Udalaren informazioa

Udalak egiten duenaz herritarrek informatu asmoz, 'Segurako Udalaren informazioa' O. alea buzzoneatu berria da. Informazioa sortu ahala, urtean 3-4 ale kalera-tuko dira.



San Sebastian urtarriaren 21ean

Santuaren eguna datorren zapatuan bada ere, jaien ospatuko da San Sebastian eguna izen bereko ermittan. 12:00etako meza nagusia bertan emango da auzoan hildakoen alde. Ondoren udalaren laguntzaz eskainitako hamaiketako bertar-tzen direnentzat. Aurten gainera ermitta pintatu egin da kanpo aldetik eta beste itxura bat izango du. Lana, azkeneko as-teen San Andresko Patxi Albizuk burutu du.

Futbola

● **Asteburuko emaitzak:** infantilak: Aizkorri 5-1 Aloña Mendi. **Kadeteak:** Aizkorri 4-0 Zestoa. **Jubenilak:** Antonianoak 1-8 Segura. **Preferentea:** Segura 0-2 Tolosa.

● **Asteburuan etxean:** **Preferentea:** Segura - Zarautz, zapatuan, 17:00etan. **Jubenilak:** Segura - Zestoa, jaien, 16:00etan.

● **Eskerrak emanaz** Segurako Futbol Taldeak abenduaren 23an antolatu zuen Igo makro festa dela eta,

bera burutzeko laguntza eman zuten guztiak eskertu nahi ditu, bereziki Segurako Udala eta festa gauzatzen lagundu zuten herritar nahiz kanpotarrak. Lehenengoaren arrakasta ikusirik, datorren abenduan II. makro festa antolatzea erabaki dute.

Kirol eskolarra

● **Pelota:** zapatua, urtarriak 13, bi partidu 12:00etan hasita. **Mutil alebinak** Zaldibia eta Zegamakoaren aurka jokatuko dute, Baratze pelotalekuan.

● **Mendi irteera:** igandea, urtarriak 14, Txurroko puntara goizeko 8,30etan plaza-tik irtenda..

Bola denboraldia

Urtarriaren 7an hasi zen bola denboraldia, taldekako Igo saioarekin. Segurarrak 7. geratu baziren ere, Xepeño Agirrek irabazi zuen eguneko tirada, 46 birla jota. 2. saioa Legazpin izango da datorren igandean.

Joseba Telleria

Olentzero segurarra Nafarroan

Nafarroako herri batean, abenduaren 24an urtero egiten den Olentzeroren etorreran segur bat atera ohi da Olentzero. Zein ote da argazkiko Olentzero?



Itsasondoko txirrindulariak indarrean

Zugaitz Ayuso Euskadiko ziklo kros txapelduna da 23 urtez azpiko mailan. Urte Zahar egunean Elorrión jokatu zen txapelketan itsasondorak 4. egin zuen lasterketa nagusian, 23 urtez azpiko lehen postua eskuratuz. Bigarren sailkatu zen Haritz Ortizekin norgehiagoka gogorra izan zuen Zugaitzek.

Mikel Gaztañaga nagusi da Anoetako belodromoan astero jokatzen den pistako challegean. Lehen 6 jardunaldiak jokatu ondoren itsasondorra lehen postuan dago 93 puntuekin, bigarren dagoen Asier Maeztuk baino 6 puntu gehiago. Caja Rural taldean dabil Gaztañaga eta abiadurako lasterketetan azaltzen du bere lehiakideekiko nagusitasuna.



Zaragozak Beasain kanporatu

Erreala Errege kopatik kanpo utzi ondoren itxaronpetsu ziren beasaindarrak. Baina lehen mailako 2 talde kanporatzea lan handitxoa izan zuten. Zaragozaren aurka lan ona egin zuen Gonzalo Arkonadaren taldeak, baina lehen mailako taldeen aurka hori ez da nahikoa izaten. Zaragozatarren atearen aurrean ez zuten asmatu beasaindarrek, gola sartzeko zortea falta izan zuten. Aurkariak, berriz, aurkakoa. Izan zituzten 3 aukerak gauzatu eta 0-3ko emaitzarekin nagusitu ziren.

Neurketaren amaieran entrenatzailea gustura azaldu zen bere taldeak egindako jokoarekin, ez horrela epailearen lanarekin.

Joseba Beloki Oncera

Joseba eta Gorka Beloki anaiek Once taldearekin sinatu dute 3 urtetarako. Josebak beste urtebeterako kontratua zuen Festinarekin, baina hobetzeko akordioak lortu ez zutenaz, Josebak Kutxari 75 milioko kreditua eskatu ondoren bere askatasuna erosi ahal izan zuen. Pausu hau emanda bere ametsetakoa bat lortu du Josebak. Iaz egindako denboraldi bikainaren ondoren ildo horretan jarraitzeko itzaropena du.

Ordiziako igeriketa saria

Gizonezkoetan Denis Pankratov eta emakumezkoetan Nina Jivaneskaia izan ziren garaile Majoriko igerilekuan. Azken hau izan zen eguneko protagonista probako errekorra jartzetik gain omenaldia egin baitzioten antolatzaileek.

Beasaingo San Silbestrea Keniara

Gizonezkoetan George Okuoro keniarra eta emakumezkoetan Natalia Azpiazu izan ziren irabazle Beasainen urteko azken lasterketan. Lehen bi herritarak Manu Hurtado eta Aratz Aranburu izan ziren.



Xabier Imaz Aspera

Pilotari segurarrak Aspe enpresarekin 3 urteko kontratua sinatu berri du. 19 urterekin debutatu zuenetik Asegarceko jokalaria izan da Imaz. Bi enpresen aldetik oso antzeko diru eskaintzak zituenek kirol eskaintzaren arabera hartu du erabakia. Asegarcek maila handiko atzelari gazteak ditu eta Aspe, berriz, atzelariak fitxatu nahian dabil aspaldian. Hau dela eta denborarekin Aspen estelarrak jokatzeak aukera handiagoa izango duela uste du Xabierrek.

Lehen partidua estelarra izan zuen. Joan zen igandean Eibarko Astelehenan Etxaniz aurrean zuela Capellan eta Berna errioxarren aurka 22-21 galdu zuten. Partidu gogorra izan zen eta hainbat unetan Bernari nagusitzea lortu zuen segurarrak.

Martin Alustiza ere denen ahotan dabil asteburu honetan hasten den Eskuz binako txapelketa dela eta. Ruben Beloki burlatarra izango du atzelari eta askorentzat txapela irabazteko bikote faboritua osatzen dute. Xabier Imaz, berriz, bere enpresako lehen ordezkia izango da txapelketa honetarako.

Etxebizitzak

salgai

➡ Etxebizitza salgai Ordizian. Mobleztatua eta egoera onean. 60 m²koa. 943888597. Gaueko 8etatik 10etara deitu.

➡ Etxebizitza salgai Beasainen. 3 logelakoa, sukalde berria eta berogailuarekin. 943885188.

➡ Legorretan etxebizitza salgai. Dena berria. 943806404.

➡ Etxebizitza salgai Idiazabalen. Berria, 70 m²koa. 2 logelakoa. Ekipatua. 627869700.

➡ Zegaman, San Bartolomen, etxea salgai. 943801565-943801903.

➡ Lazkaon pisua salgai. 90m²-koa. 649035311.

➡ Zegaman etxebizitza salgai, bodegarekin. 943888113

Negozioak

traspasatu

➡ Ordizian taberna traspasatzen da. Erdigunean dago. Berria. 943882883.

➡ Martxan dagoen lokal komertziala traspasatzen dut Ordizian. 330 m², oso zentrikoa eta ekipatua. Bezero ugari. Errenta txikia eta aparkaleku handia. Edozein tailer mota montatzeko ezin hobe. Elkar hartuta erabaki beharreko salneurria. 943161835.

Lokalak

salgai

➡ Lokala salgai. Prezio interesgarria. 610382961.

Debaldeko iragarkiak

GOIERRITARRA aldizkariak eskaintzen dizun doaneko tarte honetan iragarkiren bat jarri nahi baduzu, deitu 943-889612 telefonora. Edo nahiago baduzu, faxez (943-882719), postaz (Ordiziako 124 posta-kutxara)edo posta elektronikoz (goierritarra@topagunea.com) bidali zure mezua.

Aldizkari honek ez du sail honetan argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Bestelakoak

salgai

➡ Altzairu herdoilgaitzezko salmahaia salgai. 4,25 metroko angeluarra. Marmolezko zokaloak. 943801195. Prezio interesgarria.

➡ Salvat entziklopedia eta Olivetti idazmakina salgai. 943882278.

➡ Pertsona ezinduak mugitzeko garabia edo grua salgai. 943886834.

➡ BH markako mountain bike bizikleta salgai. Zozketa batean egokitua eta erabili gabea. 20.000 pezeta. 943653239.

➡ Sagar zakuak salgai. Prezio onean. 943800180. Gaueko 10etatik 11etara deitu.

➡ Kanpin denda handia salgai. Bi logelakoa. 943883797.

➡ Unitekno markako vaporettoa salgai, bere plantxa eta osagarri guztiekin. Erabili gabea, beraz, egoera oso onean. Prezioa, 65.000 pezeta. 943653239.

➡ Merkantzi garraiorako tarjeta salgai. 943180324.

➡ Gitarra amplifikadorearen 'Soutek MIG 100' kabezala salgai. Prezio onean. 943886534. Gaueko 9ak aurretik deitu.

➡ Kawai pianoa salgai. PN 100. 943161156.

➡ Modena salgai. 943882278.

erosi

➡ Autoarentzako gurdia eta espeleoko eskalak erosiko nituzke. 656415678. Erramun.

Ibilgailuak

salgai

➡ Ford Fiesta, diesel, SS-AV, salgai. 87.000 km. Egoera onean. 21:00etatik aurrera deitu. 943027697.

➡ Aprilia racing errepideko motorra salgai. Tabi eskapearekin. Prezio onean. Gutxi erabilia. 943806421.

➡ Cady motor gorria salgai. Parabrisa, aluminiozko llantak eta aurrealde saskiduna. 626610384.



Ordizia Kirol Elkartea

Lehendakariak eta zuzendaritzakide, entrenatzaile, laguntzaile eta jokalariorik. Elkarteko taldeen jarraitzaile, Ordiziako eta Goierriko gainerako kirol eta kultur Elkartegure laguntzaile eta goierritar guzti-guztioi.

Zorionak eta urte berri on opa dizkizuegu

➔ Opel Vectra salgai. 1800, 16 v eta 115 zal-di. SS-AY. 1.850.000 pezetan. 943027506 - 943027046.

➔ Aprilia sonic 50 motorra salgai. 2 urtekoa. Hebo tupo eskapeduna. 170.000 peze-ta (negoziagarriak). 656745299.

Animaliak

opari

➔ Txakurrak opari-tzen dira. 943160402.

salgai

➔ Cocker eta boxer arrazako txakurkume-ak salgai daude. Pedegrearekin. 696057346.

Lana

eskaerak

➔ Beasainen emaku-me edo neska euskal-duna behar da etxeko lanak egin eta 2 urte t'erdiko haurra zain-tzeko. 943160157. 20:00etatik 22:00etara deitu.

➔ Pertsona bat behar da Seguran tabernan lan egiteko. 943800251.

➔ Pertsona euskaldu-na behar da adineko emakume bat zaindu eta etxeko lanak egite-ko. 943889883.

➔ Emakume bat be-har da etxeko lanak egin eta haurrak zain-tzeko, arratsaldeko 3,30etatik 8etara. 943888574 - 943889307.

➔ Mutil bat behar da igeltseritza edo enko-fratu lanerako. 943887361.

➔ Mutil bat behar da igeltseritza lanerako. 943889576.

➔ Neska euskalduna behar da tabernan zer-bitzari lanak egiteko. 679579621.

➔ Pertsona euskaldu-na behar da adineko emakume bat zaindu eta etxeko lanak egite-ko. 943889883.

eskaintzak

➔ Adineko jendea zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Haurrak ere zainduko lituzke. 699832929. Rosa.

➔ Neska bat eskain-tzen da etxeko lanak egin eta haurrak zain-tzeko. Euskalduna. 29 urtekoa. Esperientzia-duna. 943889521. Ele-na.

➔ Neska euskalduna eskaintzen da goizez adineko pertsonak zaindu edo etxeko la-nak egiteko. 943161278.

➔ Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko. Baita etxe-ko lanak egiteko ere. 649011262 - 943882209. Idoia.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

ADMINISTRARIA

Gasteizen. Erref. 43395/2

KOMERTZIAL EXEKUTIBOA

Donostian. Erref. 41595/6

ADMINISTRARIA

Gasteizen. Erref. 43409/2

TEKNIKO KOMERTZIALA

Donostian. Erref. 43728/1

KOMERTZIAL EXEKUTIBOA

Donostian. Erref. 44233/1

BOBINATZAILEA

Tolosan. Erref. 43828/1

GRUA GIDARIA

Goierriin. 43739/3

SOLDATZAILEA

Goierriin. 43629/0

ELEKTRIZISTA

Goierriin. Erref. 41658

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza

943 884 401

Lili

loradenda

Etzeiak, zentroak, koroak,
lore lehorrak, balkoiak....

Zaldizurreta 3 behea, Beasain 943 888149



Pottoka
KAFETEGIA

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

● Pintxo hotz eta beroak

● Ogitarkeak

ZINEA

goieniz

GOIENIZ:

Urtarrilak 18,
'Allanamiento de
Morada' laburmetraia eta
'Recurso humanos'
 21:00etan, Usurbe
 Antzokian.



BEASAIN:

'El 6. día',
 Ostirala 12: 22:15
 Larunbata 13: 19:30 -
 22:15
 Igandea 14: 19:30 - 22:15
 Astelehena 15: 19:30 -
 22:15.

ORDIZIA:

'Otoño en Nueva York',
 Ostirala 12: 22:15
 Larunbata 13: 19:30 -
 22:15
 Igandea 14: 19:30 - 22:15
 Astelehena 15: 19:30
'Ametsen lapurra',
 Igandea 14: 16:45

LEGORRETA:

'Un indio en Paris',
 Igandea 14, 17:00etan
'Manolito gafotas',
 Igandea 21, 17:00etan.

'Recursos humanos' Laurent Cantet

Frank 22 urteko enpresari-
 tza ikaslea da eta bekadun
 dabil, Giza Balibideen saile-
 an, bere aita 30 urtez lan
 egiten ari den lantegian.
 Frank zuzendaritzaren jarre-
 ra atzerakoiei aurre egiten
 saiatuko da, 35 orduko lan
 astearen inguruko negozio-
 zio zailak bideratu nahian.

Aita harro dago bere se-
 meaz, baina bien arteko ara-
 zoa sortzeaz dago, mutilak
 nagusien benetako asmoak
 zein diren jakiten duenean:
 lan orduen murrizketaren ai-
 tzakian langileak kaleratzea,
 bere aita barne.

Laurent Cantetek fran-
 tses zinean tradizio handi-
 koa izan zen proletario jene-
 roa berreskuratu du, bene-
 tan. Dokumentu soziala,
 lantegiko zinea, sindikatue-
 na, barrikadetakoa, greba
 girokoa. Izan ere, egiazko
 lantegi baten errodutua izan
 zen, produkzioa gelditu ga-
 be eta enplegu bulegotik au-
 keratutako aktoreak baliatuz
 gainera.

bertsoak

BEASAIN:

Urtarrilak 20, Aitor Sarrie-
 gi eta Ekaitz Goikoetxea, Ga-
 rinen, arratsalde partean.

Urtarrilaren 15era arte,
 Joseba Beloki txirrindula-
 riaren iraganeko argazkiak,
 Zinema tabernan.

Urtarrilaren 15era arte,
 'Goierrri publizitatean' era-
 kusketa, Zinema tabernan.

bestelakoak

BEASAIN:

Urtarrilak 17, Itziar Zubi-
 zarreta ipuin kontalaria,
 18:00etan, Kultur etxeko li-
 burutegian.

LAZKAO:

Urtarrilaren 21era arte,
 'Munduko tresnen erakus-
 keta', Kultur etxeko era-
 kusketa aretoan.

SEGURA:

Ekaina bitartean, Rafa Be-
 rasategiren argazki eras-
 kusketa, Atsedenen.

erakusketak

BEASAIN:

Urtarrilak, IX. pintura
 lehiaketan aukeratutako
 margoen erakusketa, Ater-
 pe tabernan.

Urtarrilaren 14ra arte, Be-
 asaingo hirigintzaren bila-
 kaerari buruzko erakuske-
 ta, Usurbe antzokian.

Urtarrilaren 14ra arte,
 jaiotzen erakusketa, Igartza
 jauregian.

mendi-irteerak

Beasaingo mendizaleak:

Urtarrilak 14, Mandubia-
 Izazpi-Antigua.

Urtarrilak 21, Murumendi.

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



gizarte-ekintza
obra social


Goieniz zine klubaren ziklo berria

Atzo, urtarrilak 11, jarri zuen martxan Goieniz zine klubak zine ziklo berria. Apirilaren 5era arte izango da. Emanaldiak ohi bezala, Beasaingo Usurbe antzokian izango dira, gaueko 9etan. Sarrerak 500 pezeta balioko du. Hori bai, ziklo oso-rako abonoak 2.000 pezetan daude salgai. Ziklo berrirako prestatu duten pelikula bilduma duzue jarraian.

- **Urtarrilak 18:** 'Allanamiento de morada' laburmetraria eta 'Recursos humanos' (Laurent Cantet).
- **Otsailak 1:** 'Happines' (Todd Solondz).
- **Otsailak 8:** 'Desire' laburmetraia eta 'Qué es la vida?' (François Dupeyron).
- **Otsailak 22:** 'Inventario' laburmetraia eta 'Memoria y deseo' (Niki Caro).
- **Martxoak 8:** 'Bancos' laburmetraia eta 'Los cinco senti-dos' (Jeremy Podeswa).
- **Martxoak 22:** 'Haragia' laburmetraia eta 'Garage Olim-po' (Marco Bechis).
- **Apirilak 5:** 'El camino a casa' (Zhang Yimou).

Patxi Epelderen erakusketa Tolosan

Urtarrilaren 15era bitartean, To-losako Aranburu jauregian, Or-diziako Patxi Epelde margolaria-ren erakusketa dago ikusgai. Otsailean Iruñako Zitudadelan izango da.



GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Arriola
(Plaza Nagusia, Ordizia). 943 880628.

Urtarrilak 13-14: Cuesta
(Nafarroa Etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

Urtarrilak 20-21: Lurnaga
(Kale Nagusia, 4 - Beasain). 943 881828.

Orientazio jardunaldiak bigarren ikasturteko batxilergoko gurasoentzat

Beasaingo Txindoki-Alkartasuna Institutuak bere orientazio programaren barruan batxilergoko bigarren mailako ikasle-en gurasoei zuzenduriko Orientazio Jardunaldiak antolatu ditu. Jardunaldi hauen helburua gurasoei bere seme-alabek etorkizunean burutu beharko dituzten ikasketei buruzko in-formazio argi eta zabala eskaintzea eta erabakia hartzerako-an laguntza ematea da. Hitzaldiak bereziki gurasoentzat di-ren arren, ikasleak joan daitezke, lekua oztopo ez bada behintzat.

Urtarrilaren 16tik 24ra bitartean, sei hitzaldi eskainiko dira Institutuko areto nagusian. Hitzaldiak unibertsitate-irakasleek, ikastetxe-uzendariak eta beste zenbait era-kundetako ordezkariak emango dituzte.

- **Urtarrilak 16, asteartea: 19:00etan:** 'Bigarren Hezkuntza bukatutakoan, zer?' Unibertsitatea eta heziketa zikloak. Ikasleak lantzen joan behar duen perfila. Titulazioak eta lan merkatua. Hizlaria: Joseba Amundarain (Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomi saileko prestakuntza, enplegu eta Ko-munitateko Fondoaren atalburua).
- **Urtarrilak 17, asteazkena: 19:00etan:** 'Euskal Herriko Uni-bertsitateko ikasketak'. Hizlaria: Isaac Barrioa (Cicerone Programaren arduraduna eta Gipuzkoako EHU-UPV Cam-puseko Unibertsitate-Orientaziorako zerbitzukoak).
- **Urtarrilak 18, osteguna: 19:00etan:** 'Mondragon Unibersi-tateko ikasketak'. Hizlariak: Iñigo Ramirez de Okariz (Es-koriatzako Fakultateko irakaslea) eta Jabier Mendiluze (Arrasateko Fakultateko Injenerutza eta Kalitateko zuzenda-ria).
- **Urtarrilak 23, asteartea: 18:00etan:** 'Nafarroako Unibersi-tateko ikasketak' (pribatua). Hizlaria: Manuel Jimenez Con-de (Donostiako Goi-Mailako Injenerutza Eskolaren Zuzen-dari-albokoak). 19:00etan: 'Deustuko Unibertsitateko ikaske-tak (Donostia)'. Hizlaria: Jose Antonio Rodriguez (informa-zio akademikoaren koordinatzailea).
- **Urtarrilak 24, asteazkena: 19:00etan:** 'Goierrri aldeko Hezi-keta Zikloak'. Gonbidatutako ikastetxeak: Goierri L.E., Oianguren BHI, Txindoki-Alkartasuna BHI.



Joan Iturralde, 5 ☎ 943 160 120
BEASAIN
ikastekakademia@latinmail.com

ERREKUPERAKETAK

- ✕ Unibertsitate-maila
- ✕ Batxilergoa
- ✕ DBH
- ✕ ...

TAILERRAK

- ✕ Ortografia
- ✕ Irakurmena - idazmena
- ✕ Kalkulua, logika
- ✕ Testu lanketa

ESKOLA LAGUNTZA

- ✕ Maila eta arlo guztietan

Orain ZERBITZU BERRIA:
IRAKASLEA zure ETXEAN!
Informa zaitez!

Erauskin auzoko III. auto igoera: Andres Vilariño irabazle

B easainen jokatu zen abenduaren 17an, igandea, hirugarren aldiz Usurbe azpiko paraje ederretan Erauskin Auzorako Auto Igoera. Andramendi Beasaingo ikastola, Kilometroak 2001en aurretik burutzen ari den ekitaldien artean burutu zen auto igoera hau. Kilometroetako antolatzailek abenduan burutu duten ekitaldi bakarra izan da, dagoeneko urte berriari begira lanean jarri baitira ekintza berriak pentsatuz eta urriaren 7an ospatuko den Kilometroak egunaren diseinuan guztiz murgildu baitira. **Goierritarraren hurrengo aleetan aurtengorako prestatu duten ekitaldien zerrenda ezagutzeko aukera izango dugu.**

Auto - igoerari dagokienean esan behar da egungo pilotorik eza-gunenak izan zirela Usurbepeko maldetan. Andres Vilariñok ez zuen hutsik egin bere barketa ikusgarriaz eta ohi bezala ikuskizun paregabea eskaini zuen zaletuen gozamenerako.



Aitor Zabaletak ezin izan zuen parte hartu eta horrek igoerari emozio apur bat kendu bazion ere, Vilariñok aurrez zuen errekorra gainditzeko gogo bizia zuela jakiteak ikusmina piztu zuen zaileen artean. Gogoz aritu bazen ere ezin izan zuen 1998an ezarri zuen 1:14,23ko marka hobetu. Probako irabazlea izan zen baina bere denbora 1:15,72 segundukoa izan zen. Baina horrelako igoeretan barketak gutxiengo dira eta barketak bezain ikusgarriak izaten dira auto normalak eta hauei buruz ere hitzegin beharko dugu ba!

Lan ikusgarria egin zuen Lebeitik bere Renault 5 Turbo 2arekin, podiumeko 2.postua eskuratuz 2.igoaldian lortu zuen denborari esker: 1:26,85. Dena den Lebeitik ez zuen erraza izan bigarren postua eskuratzen, Josu Ugartek 1:26,95eko denborekin gauzak estu ipini baitzizkion bere Citroen AX arekin.

JON ARANBURU Beasaindarra bosgarrena izan zen. Ez zuen ongi hasi goiza Jonek, entre-

namendu saioan gauzak oker atera baitzitzaizkion, bere Citroen ZXarekin izan zuen kolpe bat zela medio denborarik txarrenetakoa egin baitzuen. Ez zen giro Joni laguntzen zebiltzan mekanikoen inguruan lanak presaka egin behar izan baitziren autoa 2 igoaldi ofizialearako prestatzeko. Dena den lan horrek bere emaitzak eman zituen, Jonek 2. igoaldi ofizialean 1:29,04ko denbora markatu zuen, amaieran 5. postuan amaitu zuelarik. Lan bikaina beraz Jonek egindakoa.



TOKI ALAI taberna jatetxearen ustiaketa esleitzeko lehiaketa deitu du Aramako Udalak.

Informazioa jasotzeko deitu 943 88 11 70 telefonora.



**ARAMAKO
UDALA**

Sagardoa: atzo eta gaur

San Sebastian eguna gerturatzearekin batera, sagardotegien denboraldi berria irekitzen da. Sagardotegiek prest dute sagardo berria eta sagardozaleak ere irrikitan daude mama goxoa dastatzeko. Baina txotx-garaia jatorriaren berri ba al daukagu? Sagardoaren historiaren berri ba al dakigu? Jakoba Errekondo eta Iñigo Garcia de Eulatek 'Sagardoa. Galderak eta erantzunak' liburuxka kaleratu zuten iaz eta berau oinarri hartuta, geure buruari egiten dizkiogun hainbat galdera argitzen saiatuko gara.

Txotx-garaia

Sagardoa txotxetik edateko ohitura oso zaharra da Euskal Herrian. Sagardo-erosle- en ohitura zaharra da. Sagardoa upelean dagoenean bere osatze-prozesua gauzatzen ari da. Hau dela eta, gero uda-udazken aldean bakoitzaren gustura egokitutako sagardoa zein izango den aukeratzeko edaten da txotxetik. Txotxetik ezin zaio asko tira upel bati, osatzen ari den sagardoa zapuztu baitaiteke. Sagardogileak kontu handiz aukeratzen du zein upel eta zenbat aldiz ireki.

Gaur egun, ordea, txotx-garaia sagardoa aukeratzeko baino sagardotegiek eskaintzen duten giroaz gozatu eta sasoiko sagardo gaztea edateko ohitura bilakatu da.


Txotx-garaiak, urtarila- ren erdialdera, San Sebastian egunaren, urtarrilak 20, inguruan, hasi eta udaberriko lehen ilargi bete bitartean

(Aste Santua) irauten du. Gaur egun sagardotegi batzuetan upeletako prozesua temperatura bidez kontrolatzen denez, Aste Santuaren ondoren ere sagardoa txotxetik edateko aukera badago.

Sagardotegietako jakiari dagokionean, garai batean, negu partean, eskura zituzten jakietatik sagardoarekin ongien uztartzen zirenak, gazitutako bakailaoa eta haragia ziren. Gaur egun ere, era ezberdinetan badira ere, bakailaoa eta haragia dira sagardotegietako protagonista.

Sagardotegia: "euskaldunon kolegioa"

Garai bateko sagardotegiek gaur egungo tabernen lekua betetzen zuten, hau da jendea parrandan, bertsotan, edota, besterik gabe, gizartean elkartuta egoteko tokiak ziren. Aisian, parrandan, ospakizunetan... elkartzeko lekuak ziren. Bertso-saio ederrak



egindakoak dira bertsolariak. Udarregi bertsolariak esana zuen: "gure kolegioa, sagardotegia".

Gaur egun, berriz, bi eratako sagardotegiak daude; txotx-garaian sagardoa dastatzeko aukera ematen dutenak batzuk eta sagardoa osagai garrantzitsua duen jatetxe bereziak besteak.

Upela eta botila

Gaur egun altzairuzko kupe- lak gero eta erabiliagoak dira, sagardoaren prozesuaren kontrol zehatzagoa egiteko aukera ematen dutelako eta mantenimendu arazo (garbitasuna, hermetikotasuna, etab.) gutxiago dituztelako.

Orain arte dena den, sagardoa ontzeko kupelak zurezkoak ziren, batez ere, haritzek eta gaztainondoekin egindakoak. Haritzeko ontziak kalitate oneneko sagardoa bermatzen duela diote adituek.

Upeletik botilara. Urtarri- letik apirilera bitartean sagardoa txotxetik edaten da. Hurrengo urratsa, sagardoa botilaratzea izaten da. Sagar-

doa botilaratuta ere bere osatze-prozesuan jarraitzen du eta orduantxe garatzen ditu kolorea, zaporea, txinparta, usaina, etab.

Mende honen hasieran sagardotegi eta elkarte gastro- nomiko askok bere sagardo- botila propioa izaten zuten: litrokoa, beira urdinxkakoa eta sagardotegiaren izena erliebean zuena.

Gero, sagardoaren estima- zioak behera egin zuen neu- rrian, beste edozein edariren botilan jartzen zen; xanpai- na-botila izan zen horretarako erabiliiena.

1985az geroztik, ordea, sagardogileen ekimenari esker, kalitatezko edari guztiek bezalaxe, bere izaera osatzen laguntzen dion aparteko botila du sagardoak. Sagardo- botilak kolore berde argia du eta hiru txikikoa da, hau da 75 cl-koa. Aipatzeko da muturraren diseinua, sagardoa ahal den hobekien botatze-ko eginga baita. Hiru txiki-ko botila honez gain, botila txiki berezia ere bada; 33 cl-koa da eta botila handiarekin batera hasi zen erabiltzen.

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
San Inazio, 5 ☎ 943 88 35 81
BEASAIN

LAZKAO
GARAJEA
Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

Ordenagailuen
✓ Salmenta
✓ Konponketa
✓ Sareak
✓ Programazioa zure neurria
infonet
Urdaneta, 8 ☎ 943 16 04 11 **ORDIZIA**
E-posta: infonetordizia@terra.es



Idiazabal 1949an

Juan Cruz Zeberio zena, 1949ko uztailaren 27an, Etxegarateko zelaitik, bere baserrira, belar ondua ekartzen. 14 kilometroko ibilbidea egiten zuen sarri-sarri. Alboko bikotea Brasilgo Rio de Janeiroko turistak dira. Juan Cruz ikusi, argazkia atera eta Brasildik postaz bidali zioten argazkia.

Idiazabal, Segura eta Mutiloako hainbat eta hainbat baserritarrek ibilera berdinak egiten zituzten. Guztien omenez bidali digute argazkia.

Zure etorkizuna EUSKARAZ



ESKAINTZA

EUSKALDUNTZE eta
ALFABETATZE maila guztiak, EGA.
Ikasketa bereziak eskariei egokituak.
Ordutegi zabala.
Beka sistema daukagu.
Berri gehiago, Udal Euskaltegian.

BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 09:00-13:00
Arratsaldez: 15:00-19:00.

MATRIKULATZEKO EPEA

Urtarrilaren 15etik 31ra
16 urtetik gorakoentzat.

BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA

Loinazko San Martin plaza, Kultur Etxea, 1.a • 20200 BEASAIN
Tel.: 943 028 100 • Posta elektronikoa: udaleusk_beasain@jalgi.com

Boni-etxe

igeltseritza orokorra



☎ 616 921 502 ☎

Oriako pasealekua, 12

BEASAIN

URBITARTE

TOLARE SAGARDOTEGIA



IREKI DUGU

TXOTX

DENBORALDIA

*Eguerdi eta gaueetan
irekita*

*Eguerdietan hobe
aurrez deitzea*

*Zatoz lagunarteko
giroaz gozatzera!*

*Zatoz Urbitarte
sagardotegira!*



☎ 943 180 119

Ergoiena auzoa

ATAUN

Antizar Kirola

